

Alzola, Epalza eta Quintanilla Bizkaiko txapeldun ziklo-krosean

11. orrialdea

Igorreko Ziklo-krosa hilaren 8an

Hilaren 8an izango da Igorreko XXXVIII. Ziklo-krosa Olabarriko zirkuituan. B kategoriako nazinoarteko proba da eta Inguruko ziklo-krosari "danak" egongo dira. Proba nagusiak 13:00etan izango dira. 2011ra arte Igorreko Ziklo-krosa Munduko Kopako proba zan baina azken urteetan, kategoria manteniduteko behar eban aurrekontua ezin izan dabe eskuratu antolatzaileak. **11. orrialdea**



Bebe abeslariak kontzertua emongo dau Igorren hilaren 15ean

12. orrialdea

TOKIKOM

begitu

arratia ubide zeberio

197

2013ko abenduaren 2a
hamabostekaria
www.begitu.org

Abenduak 3, Euskerearen Eguna

Euskeraz bizi gura dogu Arratian eta Euskerearen Nazinoarteko Egunean euskerearen aldeko festak, lasterketak eta ikuskizunak antolatu dira. Lemoan eta Diman gainera

euskeraren aldeko kantak aurkeztuko dira egun horretan.

Euskereari bultzadea emoteko beharrea dabiz aspaldi udalak, eskolak, alkarteak, hedabideak eta beste eragile

asko, Euskera Planak gauzatzen. BEGITU eremuan, hitzunen % 69 euskaldunak gara, % 16,5 ia euskaldunak eta % 14,5 erdaldunak. **8. eta 9. orrialdeak**

**EUSKERAZ BIZI
GURA DOT**

BEDIA

Leku ez seguruen mapea aurkeztu dabe

Bediako leku ez seguruen mapea aurkeztu eban zemendiaren 22an Gotzone Zabala zinegotziak, gehienak urigintza lanakaz konpondu daitezkeanak. Leku horreek herritarrek markau zituen eta ekintza hau andra eta gizonen arteko Bardintasun Planaren barruan dago. Aurkezpenean, Aitor Sorriketa alkatea eta Miren Urresti Mankomunitateko Bardintasun Teknikaria be egon ziran. Alkateak azaldu eban leku bakotxean zer egin daiteken leku ez seguru horreek leku seguru bihurtzeko. Bardintasun Teknikariak, barriz, bildurraren gainean egin eban berba. "Bildurrak be genero eraikuntza dauka. Androk gertatu daitekenari bildurra izateko gagoz hezita, holan gure askatasuna murrizteko eta kontrolpean izateko" esan eban Urrestik. **5. orrialdea**

IGORRE

Diskotekea izandakoa Gaztetxea da

Garbe auzuneko eraikin bat okupau eban Igorreko gazteak zemendiaren 17an Gaztetxe bihurtuteko. "Eizu kiñu" dinamikearen barruan dago ekintza hau eta gazte mobimentua sustatzea dauka helburu. Orain lekua atonduten, garbitzen eta erabilgarriak diran gauzak sailkatzen dagoz. Eraikina handia da, hiru pisu daukaz, komunak eta bulegoak. Eta diskotekea zanez, insonorizauta dago. Gazteak jaubeagaz negoziazioetan dagoz eta seguru bat egin ezker arazo barik itxiko deutse erabilten. **7. orrialdea**

Berezitu
Gluten eta laktosa bako ogi eta gozokiak

Ber ezitu

Bertan eginda
Murrizketa bako gogoko kapritxoak
Eskaerak hartzean dira

Lehendakari Agirre Etorbidea, 11
Igorre 48140 Bizkaia
Telefona 946 737 280
Mobila 692 318 166
www.berezitu.com
berezitu@hotmail.com

ARRATIA

Konposta egiteko ikastaroak

Materia organikoren birziklatze maila handitzeko asmoz, etxean konposta egiteko konpostagailuak bananduko ditu Mankomunitadeak. 490 lagunek emon dabe izena eta horreek ikastaroa izango dabe konposta egiten ikasteko. Hilaren lehenengo hamabostaldian izango dira ikastarook.

Edukiontz marroia erabilteko be 200 lagun baino gehiagok emon dabe izena azken hileotan eta 2.000 inguru dira hau erabilten dabenak. **6. orrialdea**

Agirre
Pellet eta egur salmenta

616983613 (Iker)
ikerdima@yahoo.com
Igorreko Industrialdea F11-3B

IGTIE

EUSKAL HERRIKO NEKAZARITZA EKOLOGIKO
ELKARTEEN KOLEKTIBOA: EHKOLEKTIBOA

Zemendiaren 23an, Zuberoako Irbarne Jauregian EHKolektiboaren bilkura nagusia burutu eben, erabagiteko zelan lotu egitura baten, Euskal Herri osoan nekazaritza ekologiko/biologikoa egiten daben laborariak. Azken urte bitan gaia jorratu dabe BLE, Biolur, Bionekazaritza, Landare, Lurreko eta ENEEK-k alkarteak.

Bertan 7 herrialdeetako 100 baserritar baino gehiago bildu ziran eta Euskal Herriko Elkarteak sortzea ebatzi zan. Agroekologia definitzeko topaketa aproposa izan zan eta preminazkoa jo eben egitura bat sortzea, bertakotasuna eta lurraldetasuna, ziurtatutako. Europako araudiak erreztasuna

emon dau nekazaritza ekologikoa industrializetako. Horregaitik desbardintzeko beharra ikusten dogu produktino txiketarik bizi garanok, arau batzuk finkatu beharra. Identifikazioa eta bermea ez jako produktuari lotuko, baserriari baino, eta produktino teknika, lan egiteko era eta gizarte baldintzak kontutan hartuko dira; baserrien handitzeari mugak ipiniko jakoz; komertzializazioa salmenta zuzenean egingo da...

Halanda be, EHKolektiboa, ez da izango zigilu bat salmentarako soilik. Helburu batzuk finkatu gura doguz, epe baten barruan gaiari heltzeko, bionekazariok be beti daukagu-eta hobetuteko eta nekazaritza ekologikorantz urratsa egin



ez dabenai laguntzea proposatzeko konpromisoa. Etorkizunean tresna baliotsua izango da hartuemonetarako, formakuntzarako

eta alkarrerri lagunduteko. Desbardintasun handiak badira gaur egun lan egiteko eran, ipar eta hegoaldearen artean, baina euskal

baserritarrek alkartzea sano ederra da, oindino gehiago nekazaritza iraunkorraren proiektu baten bitartez.

TELEFONO INTERESGARRIAK

Larrialdiak

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00
S.O.S. DEIAK 112

Guardiako Farmaziak

09:00etatik 22:00etara

Abenduaren 2tik 8ra

Traver. Bedia. J.A. Agirrerren enparantza z/g
Tel.: 94 631 39 50

22:00etatik 09:00etara

Guarrobena. Amorebieta-Etxano.

Abenduaren 9tik 15era

Kortazar. Igorre. Agirre Lehendakaria 27
Tel.: 94 673 61 09

22:00etatik 09:00etara

Goiria-Montoya. Amorebieta-Etxano.

Abenduaren 16tik 22ra

N. Arrieta Bereciartua. Lemoa. Atutxa Sailburua 1
Tel.: 94 631 30 18

22:00etatik 09:00etara

Melero. Amorebieta-Etxano.
Zeberioak ez dau guardiarik egiten.

Urte osoan**22:00etatik 09:00etara**

Chicote. Kareaga Goikoa 50. Basauri.

Medikuak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 11

Areatza: 94 631 71 52

Bedia: 94 631 34 13

Dima: 94 631 56 30

Igorre: 94 600 74 63

Lemoa: 94 631 31 16

Ubide: 945 45 03 61

Zeanuri: 94 673 91 49

Zeberio: 94 648 20 79

Udaletxeak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 05

Areatza: 94 673 90 10

Bedia: 94 631 42 00

Dima: 94 631 57 25

Igorre: 94 631 53 84

Lemoa: 94 631 30 05

Ubide: 945 45 03 22

Zeanuri: 94 673 91 46

Zeberio: 94 648 10 79

Udalen Mankomunitatea

94 631 17 17 / Faxe 94 631 92 15

Gorbeialde

94 631 55 25 / Faxe 94 631 71 01

Parketxea

94 673 92 79

Igorreko Kultur Etxea

94 673 62 51

Gorbeialde Irratia

94 631 52 90

Trenak

Euskotren 902 543 210

Bizkaibus* 902 222 265**Zeanuri-Lemoa-Ospitalea-Bilbo**

Lanegunetan: Lehenengo 05:00etan.

Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua 22:00etan.

Zapatuetan: Lehenengo 05:00etan.

Orduro: 05:45etik 21:45era.

Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era orduro.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri

Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik 22:15era orduro.

Jaiegunetan orduro 07:15etik 22:15era.

Durango-Lemoa-Ospitalea-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 06:30etik 22:30etara 30 minuturo, azkenengo 22:15ean Galdakaoraino.

Jaiegunetan: 07:00etatik 22:00etara 30 minuturo, azkenengo zerbitzua 22:45ean Galdakaoraino.

Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango

Lanegun eta zapatuetan 06:30etik 22:30era 30 minuturo.

Jaiegunetan 07:00etatik 22:30era 30 minuturo.

Ubide-Otxandio-Lemoa-Bilbo

Ubidetik urteerak, lanegun eta zapatuetan: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Otxandiotik urteerak:

Lanegun eta zapatuetan: 06:55etik 20:55era orduro.

Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era orduro.

Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide

Lanegun, zapatu eta jaiegunetan, Otxandiora: 06:45etik 20:45era orduro.

Ubidera: 06:45etik 20:45era bi ordurik behin.

Zeanuri-Lemoa-Bilbo (Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etan lehena, eta 08:15etik 21:15era orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Bilbo-Lemoa-Zeanuri (Autopistatik)

Lanegunetan: 07:00etatik 21:00etara orduro.

Zapatu eta jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

Artea-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 07:00, 15:30 eta 20:00.

Domeketan ez dago zerbitzurik.

Bilbo-Artea

Lanegunetan: 05:45, 14:15 eta 18:45.

Zapatuetan ez dago 05:45ekoa.

Domeketan ez dago zerbitzurik.

Zeberio-Bilbo

Lanegun eta zapatuetan: 09:15, 11:15, 13:15 eta 17:45.

Jaiegunetan (Arrigorriagaraino): 08:15, 11:15, 14:15, 17:15 eta 20:15.

Bilbo-Zeberio

Lanegun eta zapatuetan: 08:15, 10:15, 12:15 eta 16:45ean.

Jaiegunetan (Arrigorriagatik): 10:40, 13:40, 16:40 eta 19:40ean.

La Union* 94 427 11 11**Bilbo-Gasteiz**

Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urtetan dau eta Otxandioak 16:00etan.

Zapatuetan: Ubidekoak 09:00etan eta 16:30ean urtetan dau Bilbotik.

Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urtetan dau eta Otxandioak 18:30ean.

Gasteiz-Bilbo

Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan eta 16:15ean urtetan dau Gasteizetik eta Otxandioak 10:30ean.

Zapatuetan: Otxandioak 10:30ean urtetan dau Gasteizetik eta Ubidekoak 16:30ean.

Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urtetan dau Gasteizetik. Otxandioak ez dago.

Babesleak:

Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)
diruz lagundutakoa



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia
Kultura Saila
Departamento de Cultura



Argitaratzailea: ZERTU Kultur Elkartea.

Helbidea: Herriko Plaza 24, 48142 Artea.

Telefonoa: 94 631 73 14.

Helbide elektronikoa: begitu@topagunea.com

www.begitu.org

Erredakzino burua: Beatriz Azpiri. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 112.

Kudeatzailea: Inigo Iruarizaga.

Erredakzino taldea: Ainhoa Duñabeitia eta Irati Urien.

Maketazinoa: Inigo Iruarizaga.

Publizidatea: Inigo Iruarizaga. Telefonoa: 94 631 73 14 eta 649 979 115.

Banaketea: Pablo Rodriguez eta Rut Rodriguez (Lemoa eta Bedia), Ibai Milikua (Areatza), Iratxe Arribas eta Xabier Mendieta (Zeanuri), Berbizkunde Arroita (Zeberio), Amaia Uriarte eta Eneko Iriondo (Dima), Azibar Sagarna eta Iraitz Sagarna (Igorre) eta Ainhoa Mendia eta Irati Urien (Arantzazu, Artea eta Ubide).

Tiradea: 6.600 ale.

Inprimategia: Iparragirre Editoriala.

ZEURE BERBEA

Agur berezia, persona berezi batentzat

Idazki honen bidez, Antonio Beldarain, nire koinatuari agur beroena eskeini gura deusats nire omenaldi txikitxo moduan.

Urte askotako hartu-emon honetan danetarik bizi izan dogu. Gure ezkontzako eta baita gure seme Andoniren bateoko aitabitxia izan da. Gure inguruko gertaera guztietan (gurasoen heriotzean, semeen jaiotzetan, bateoetan, jaunartzeetan, ebakuntza baten ostean...) beti ondoan izan dogu bere laguntza agertuz, horregaitik esker ona adierazo gura deusats.

Izakera berezia izan dau: alai, zin-tzoa, hartu-emonetan zabala eta batez be ezagunen artean oso maitatua. Athletic zalea eta bazkide lez bere betiko lagunak urte askotan San Mamesera joandakoa. Orain dala urte batzuk karneta bere besoetako lobeari pasau eutsan eta Andonirentzat oparirik onena izan da. Aitabitxi beti bere barruan eroango dau, San Mameseko aulkia bere osabeagaz konpartiduko daualako.

Antonio azken urteotan, gaixotasunaren aurkako burrukan ez da inoz bakarrik egon Mari Carmen bere emaztea eta Amaia bere alaba beti ondoan izan dauzalako. Alkartuta eta maitasunez gogor egin dabe burrukan, baina atzanean, zemendiaren 10ean Antonioren irribarra desagertu zan. Inguruoak

itzelezko tristezia eta bakardadea sentidu genduan, gure bihotzetan ikaragarriko hutsunea itxi daualako.

Mosu bana bialdu gure deutset etxeke guztiai: Bego bere arrebeari, Rikardo eta Franzisko bere anaiai eta bereziki, Amaia eta Mari Carmeneri. Amaia bere aitaxo maitea joan jakolako eta Mari Carmeneri gizona, laguna eta bere bizi poza galdu daualako. Danak denporea beharko dabe mina arintzeko eta aurrera gogor egiteko.

Antonio burrukalarri gogorra izan da, beti biziteko gogoia agertzen eban, eta askotan indarra berreskuratzeko paseoa ibiltzen zan. Askok, industrialdetik goazenean bere irribarra sentiduz gogoan izango dogu.

Antoniok itxi gaitu, baina beragaz bizitako oroitzapenak beti bizi-bizirik eroango doguz gure bihotzetan. Eskerrik asko azken momentura arte zure irribarra geugaz konpartidu dozulako. Maitatua izan zara eta izango zara beti.

Larrosa bat zimeltzen danean inguruko edertasuna desagertzen da, ba zuk ihes egin dozunean dana ilunpean geratu da.

Gauero zure izarra pizten danean gure samina arinduz joango da eta zerura begiratzen dogun bakoitzean gure bihotza bakean geratuko da.

Agur bero bat Antonio, Goian ikusi arte.

MERTXE EMALDI

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu makinazko 15 lerro baino gehiago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITUK eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: Zertu Kultur Elkarte. Herriko plaza, 24. 48.142 Artea edo begitu@topagunea.com helbidera.

GEURE BERBATEGIAREN LEIHOTXUA

ANGEL LARREA ETA JUAN REKALDE

Zoldu



Persona zein animalien zauriai, ondo osatu barik dagozanean, zorne edo materia (gazt. pus) egiten jakienean zoldu egiten dirala esaten dogu (agoskatuta, sóldu). Berbarako, "Behatzean euki dodan kailua, itxikeriagaitik, zoldu egin jat". Batuaz, osasungintza arloan, infektatu aditza erabiltzen da gehienbat. Gaur egun, gure nagusien berbetan baino ez da entzututen berba eder hau.

ERETXIA

Euskarak 365 egun

Nazinoarteko Egunaren atarian euskeraz bizi, aldarrikatu, plazaratu, izan eta ospatzeko deia egin dogu Euskaltzaleen Topagunetik, herriz herri antolatuta dagozan euskaltzaleen alkarrekin.

Aurten, Euskarak 365 Egun dituala aldarrikatu gura dogu, euskeraz nongura eta nozgura egin gura dogula, baina orain eta hemen gura dogula euskeraz bizi. Euskeraz biziteko hautua egin dogunon aldarrikapena da, baina aldarrikapenetik harago doana, ekimenetik eta antolakuntzatik asko daukana. Euskaltzaleon hautua, hautu antolatua izan da urtetan; antolatzean izan dogun bisinoa hizkuntza komunitatearen garapenaren oinarrietako bat izan da: jakin dogu biltzean, alkarren arrimuan eragiten, hedabideak sortzean, euskerazko kulturagintzeari bizia emoten, euskerazko hezkuntza antolatzen, aisialdia euskeraz biziteko guneak loratzen, helduak euskalduntzeko sarea osatzen eta transmisio mekanismoak martxan jartzen. Jakin dogu, batez be, kolore anitzeko euskaltzaleentzat euskaltasunean oinarritutako espazio askeak egituratzen. Hautu hori egin dogun euskaltzaleok osatzen dogu euskerearen herriaren muina eta erantzukizunez jokatzeko jarraitzea jagoku.

Gure esku dago euskerearen herria osatzen jarraitzeko baldintzak sortzea. Euskaltzaleon ekarpena behar beharrezkoa izango da etorkizunean be, inoren zain egon barik, jarraitu behar dogu espazioak sortzean eta geureganatzen, hartu-emon sareak ehuntzen, ardurak eskatzen eta hartzean, podereguneetan eta inguru hurbilenetan eragiten. Euskaltzaleen esku dago euskerearen herriaren garapena: herrian antolatzen diran euskaltzaleen esku,

TOPAGUNEA

Euskaltzaleen Topagunea

administrazioetan erabagiak hartzeako ardura daben euskaltzaleen esku, hartu-emon sareak ehuntzen diharduen euskaltzaleen esku, enpresetan lanean eta aginte organoetan dabizan euskaltzaleen esku, zure eta gure esku.

Plazara irten gaitzean, herria, kallea, plazea, euskeraz bete daigun. Bizi gaitzean euskaldun eta euskaltzale, geu izateko euskerearen herrian.

LUMATUTEN

ARANTZA
ETXEBARRIAEzer ez da
betiko

Aurreko egunean boltsikoko telefonoa hondatu jatan. Blokeau egin zan. Abisau barik. Ez jakon inongo argirik izetu. Nik telefonoa derrigor behar neban, eta deia egin ezinik gelditu nintzan. Eta haserretu egin nintzan. Asko, gainera.

Orduan erabagi neban telefono barria eroste. Zaharra bota, dendara joan eta barria erosi. Konplikazio barik. Balio ez ebana neure bizitzatik atera eta barria eskuratu. Errez-errez. Pena barik. Atzera begiratu barik. Pentsau eta egin.

Telefono-dendara joan nintzan. Erakuslehoan telefono barri eta dirdiratsua ikusi nebazan. Aparatuon izen-abizenak ia-ia agoskatu be egin ezin nebazan arren, amesetan, telefono hareetako bat neure eskuetan ikusi neban. Eta ni pozarren, harro, kabidu ezinik,

telefono zaharra baino bizkorragoa, politagoa eta dirdiratsua zan tramankulu haregaz.

Eta dendara sartu be egin nintzan. Baina, orduan, bat-batean, sastadea sentidu neban urdaillean, estukurea. Buelta emon eta dendatik urten egin neban.

Ordenadorea, boltsikoko telefonoa edo dana dalako aparejua txarto dabilzanean, zakarrontzira bota eta barriak erosten doguz. Gizarteak be ez dau halan egin? Baten batek ondo funtzionetan ez badau, "normalidadetik" kanpo dagoan hori ez dau bere lekutik atera, kanporatu eta barria ekarten? Errez-errez. Pena barik. Atzera begiratu barik. Pentsau eta egin.

Ezer ez da betiko, ezta gu geu be.

Horregaitik, egunokaz nire deiren bat itxaroten bazagozie, trankil hartu, nire telefonoak beti ez dauz-eta egun onak izaten.

ZERTZEAN



Froga

ARITZ ARRIZABALAGA

Biak batera sartu dira froga erostera. Gabonetan haurrak izaten duten egonezin bera dute hesteetan aurrera eta atzera. Egonezina eta oinak geldi eduki ezina.

Lehenengo aldia da.

Barraren atzealdean dagoen bata zuridun neskari eskatu diote froga. Aurpegi estua du neskak, azal fina, oretzaz zipiztindua. Beraien aldean gaztea dela pentsatu dute biek, zahartu egin direla bere ondora hurbiltzean.

Atzealdeko kaxoi txiki batetik bi froga atera dizkie neskak. Berdintsuak omen dira. Euro bateko alde; osterantzean, antzerakoak. Le-

henengo aldia dutenez, ia begiratu gabe aukeratu dute bietako bat. Kalera irtetea, irribarre txikia marraztu zaie ezpainetan eta haurrak izateari buruz hitz egiten zuten garaia gogoratu dute. Ilusio uholdea sortzen zitzaien begietan urte haietan. Mutila bada, ze izen? Luken. Eta neska bada? Itsaso. Batera egiten zuten galdera. Eta erantzuna. Beti. Froga saldu dien bata zuridun neskakaren adina izango zuten garaian hartan. Pasa dira urte batzuk; ez gehiegi, izaten baitute Lukenekin eta Itsasorekin amesteko tartea.

Etxera bidean, farmazian zeukaten ezinegona hazi egin zaie, haginkadaka daukaten ba-

rrunbe guztietan. Oinen geldi egon ezina, berriz, desagertu egin da: tarrax dabilta orain. Etxe ataritik bigarren solairura bideko eskaierak astun egin zaizkie.

Komunera sartu eta froga egin dute. Emaitzara bitarteko minutuak sukaldeko erlojuaren orratzen konpainian eman dituzte, begiak frogan iltzatuta. Duela urte batzuk batera irteten zitzaien galdera: Eta neska bada? Eta mutila bada? Eta erantzuna: Itsaso. Luken.

Emaitza agertu denean, ezpainetan dardara txiki batez eta elkarri begira, baina, beti bezala, aldi berean egin dute galdera: - Zer egingo dugu?

* Zertzean atalean argitaratuko doguzan testuak, literarioak edota sormenekoak diranez, heltzean diran moduan argitaratuko doguz eta ez doguz gure euskera eremuan ipiniko.

Tarte hau zeuretzako be dago zabalik, holango sormen-lanak BEGITUN argitaratu gura izan ezker, eskatu egiguzuz argitaratzeko baldintzak begitu@topagunea.com helbidean.

BEGI TXINDORRA

EH Sona lehiaketea irabazi ebalako, kontzertua emon eban Eskean Kristö talde arratiarrak Gatibugaz batera Bartzelonako Razzmatazz areto famaduan. Arratiar piloak hurbildu zan haraino. Baina ez hori bakarrik, zemendiaren 29an Azkue Fundazioak antolatutako Banden Lehiako finala irabazi eben Bilborock aretoan. Han be arratiarrak nagusi.

Eskean Kristö taldekoak kronikea eta argazkia bialdu dabe:

Pasa dan zapatuan, zemendiak 23, arratiar tribu handia alkartu ginan Bartzelonan, kilometro asko egin ostean, Eskean Kristö izeneko sasikristö baten pausuen atzetik... edo aurretik. Indioak Bartzelonan, Euskal Herria Sona izeneko jai erritual euskaldun bat antolatu ebela eta, Bartzelonako euskal indioak bilduko zirala eta, gaubean, suaren inguruan, rock&roll erritmoak entzun eta jantzatzer. Kristötar eta Gatibutar sentidu ginan, baina ez ginan ez eskean, ez gaitibu ibili, inondik inora... bai giro ona gure artekoa!

Orduko irudia da eskoiko hau, errituala ospatu zan lekukoa, Razzmatazz areto famaduaren ateetan orroaka, algaraka, Iñaki Lazkano eta Iker Durana antolatzaileakaz, indio buruzagiakaz batera.

"Nor gara gu? Zer gara gu? Arratiarrak gara gu!!" Eta kitto, eta harro. Ez ginduzela Bartzelonan ezagutzen? Hemendik aurrera seguru baietz... Ez ebela gure tribua Bartzelonan ezagutzen? Zapatukoaren ostean seguru baietz...

Eskerrik asko Arratia Rock Valley!!!

... Eskean Kristök esana...



Gorosti Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa
LORAZAINTZA
Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorostiscl.com

agoa Ortodontzia
Implanteak
Estetika
hagin klinika
Marina Urigoitia Aldekoa
Ondaragoia
Bidebarri 1. behea
48140 Igome-Bilakia
T. 94 631 50 39
Halegora Zirkulu 101
R.P.S. 21/06

FISIOTERAPIA
Balneario Areatza
Tania Fernandez Santiago
COL. 1718
www.gruposasoibide.com
Tel: 94 657 54 50

ARRATIA

Bardintasun politikak arautzen dituan Bizkaiko lehenengo ordenantzea euki leike Arratiak

Arratiako Udalen Mankomunidadeko abenduaren 18ko Osoko Bilkuran onartuten bada, Bizkaian indarrean egongo dan lehenengo Bardintasun Ordenantzea eukiko dau Arratiak.



Bardintasun politikak arautuko ditu Mankomunidadeko ordenantzeak.

Erredakzioa

Ordenantza honen helburua Bardintasunerako egiturak sortzea da. Arau hau egiteko, Eudelek argitaratutako gidan adierazotako

erispideak erabili dira, eta bere helburu nagusia Bardintasunerako eta parte-hartzerako egiturak sortzea izango da; esate baterako, genero ikuspegia sartzea Mankomunidadearen eguneroko jar-

dueretan. Horretarako, berbakera eta irudi ez sexistak, generoaren araberako datuen sailkapena, ordezkari parekidea, bardintasun klausulak eta genero ikuspegidun aurrekontuak erabiliko dabaz. Gainera, ikastetxeak batera landutako hezkidetzak ildoak eta sexu eskubideak ezarriko dauz ordenantzeak, eta andrakanako indarkeriagaz lotutako gai guztiak be jorratuko dauz; prebentziorako, sensibilizaziorako, koordinaziorako eta arretarako protokoloaren ardatzak zehaztuz.

Bizkaiko lehena

Mankomunidadeak Eudelen bardintasunerako ordenantzen garapenerako talde sustatzailean hartu dau parte; talde horretan beste sei udal eta mankomunidade bi be egon dira. Euskal Autonomia Erkidegoan Bardintasun Ordenantza bakarra dago indarrean; Tolosan, hain zuzen be. Nafarroan, bat dago Orkoienen. Arratiako Udalen Mankomunidadekoa, barriz, Bizkaiko lehenengoa izango da. Daborduko aurkeztu da Gobernu Batzordean, eta proposamenak eta ekarpenak batzeako epea zemendiaren amaierara arte egongo da zabalik. Hilaren 18an Osoko Bilkurara eroango da.

Ordenantza honen garrantzia azpimarratu dau Josune Gorospe Mankomunidadeko presidentek "ordenantza honek izakera juridikoko araudia daukanez, bere indar guztia emoten deutso protokolo eta bardintasun planak apliketako orduan" dino.

bakartiak diranez, leku ez seguru moduan bizi dabaz mapa hau egiten parte hartu ebena.

Andrazkoen partaidetza handia

Bediako Bardintasun Planaren ekintza izan da hau eta andrazkoak urigintzan parte hartzea bultzatzea eukan helburuen artean. Mapa hau egiten parte hartu dabena % 80 andrak izan dira eta euren ekarpenak "kontuan izatekoak" dirala esan eban alkateak.

BEDIA

Hamar leku ez seguru markau dabaz bediazarrak

Erredakzioa

Bediako leku ez seguruen mapa aurkeztu eban zemendiaren 22an Gotzone Zabala zinegotziak. Horretako bat konponduta dago, daborduko. Ibarratik plazara espaloia eskatzen zan eta eginda dago. Leku ez seguruak Elexalde, Bediakolea, Bidekoetxe, Ugartezar, Jauregi; Eroso-Ugarte, Murtatza, Elexalde eta Ibarran dagoz, mapa egiten parte hartu dabena bediazarren ustez. Aitor Sorriketa alkatearen arabera, urigintza ekintza bategaz konpondu daitezke arazo gehienak.

Parte hartu eban bediazarrak argi gehiago eskatu eban Elexalden, eleizako portikoan; Bediakolean, trenerako bideko tarte baten; Ugartezarren eta Murtatzen, kanposantutik Txorroaganara doan bideko zati baten. Espaloi



Gotzone Zabala Bediako zinegotzia.

ARRATIA

Euskarazko Produktuen Katalogo barria papelean eta sarean dago eskuragarri

Erredakzioa

Haur eta gazteentzako ehunka produktu agertzen dira bertan eta hurrengo egunotan Euskal Herri osoan 200.000 ale inguru bananduko dira. Gurasoentzako eta 16 urte bitarteko haur eta gazteentzako ehunka erreferentzia biltzean ditu edizino barri honek. Diman, Igorren, Lemoan eta Zeberion topau daitezke katalogoak.

Merkaduan dagozan produktuen artean aukeraketea egin da, barritasuna, egokitasuna eta kalidadea kontuan hartuta; eta zortzi ataletan bananduta jaso dira: musikea, liburuak, aldizkariak, filmak, jostailu eta jokoak, DVD eta informatika produktuak, komikiak eta gurasoentzako produktuak. Gainera, produktu bakotzaren gitxi gora-

beherako prezioa emoten da, eta atal batzuetan adinaren arabera banaketea egiten da.

Horrezaz gainera, www.katalogoa.org webgunean, papelean jasotako produktuez gain, merkaduan aurkitu leitezkeen beste asko agertzen dira. Aukerea dago, gainera, argitaletxearen denda bertualera ailegetako produktuaren gainean klik eginaz eta, gura izan ezker, begiz jotako produktuaren erosketea etxetik egiteko. Euskarazko Produktuen Katalogoaren webgunea urte osoan kontsultatu daitezke, eta irakurleak, beren iruzkinak eta komentarioak egin daitezke, irakurri, ikusi, entzun edota olgetako aukeratu dabena produktuaren inguruan.

Ikastolen Elkartearen katalogoa kontsultatu gura izan ezker, www.ikastola.net webgunera jo daitezke.



publizitatea
94 631 73 14 eta 649 979 115



www.begitu.org

Gugaz harremanetan ipinteko
94 631 73 14 eta 649 979 112
begitu@topagunea.com

ARRATIA

Etxean konposta egiteko ikastaroak hilaren 3tik aurrera**Erredakzinoa**

Materia organikoa birziklatzeko, edukiontzi marroiaren osagarri moduan, konpostagailuak banandu eta honek erabilteko formazioa eskeintzen dau Mankomunidadeak. Formakuntza hori jasoteko 490 lagunek emon dabe izena "antolatuta dago dana 500 personentzako formazioa emoteko. Parte hartzea zabalik dago" dino Aitor Uriguen Arratiako Udalen Mankomunidadekoak.

Etxean konposta egiteko aurreagaz batera, edukiontzi marroia sustatzeko kanpaina be egin dabe Mankomunidadekoak, materia organikoaren birziklapen

maila handiagotzeko helburuagaz. Hori dala eta, etxean konposta egiteko ikastaroetan parte hartzeako izena emon dabenaz gainera, beste berrehun baino gehiago be edukiontzi marroia erabilteko apuntau dira. Orain 2.000 inguru dira edukiontzi hau erabilten dabenak Mankomunidadekoaren arabera.

Nekazal eremuetan konpostagailuak

Etxean bertan konposta egitea lorategia edo ortua daukien etxeetan eta herri erdigunetik kanpo dagozenentzat da aproposa. Konpostagailu honek, erabiltzaileak kalidade oneko konposta

egingo dabe euren ortu edota lorategietan erabilteko. Formakuntza ikastaroetan konposta egiteko oinarriko kontzeptuak ikasiko ditue partaideak eta 360 litroko konpostagailua, aireztagailua eta konposta egiteko gida jasoko dabez.

Ikastaroen egutegia

Lehenengo formakuntza ikastaroa Ubiden izango da hilaren 3an, eta hurrengo aste bietan beste herrietan. Ordutegiak 9. orrialdean dagoz.



EUSKARAK 365 EGUN

noiznahi, nonahi
orain, hemen



365egun.eu

IGORRE

Tonbola solidarioak lekua aldatu dau**Erredakzinoa**

Igorreko Agirre Lehendakaria kaleko 31 zenbakian, Kirikiño tabernaren aurrean, pinturak saltzean ebezan lonja baten ipiniko dabe aurtan Tonbola solidarioa. Abenduaren 13, 14, 15 eta 20, 21 eta 22an egongo da zabalik eta urtero lez, batzean dan dirua Igorreko misinolariak bialduko jakie. Perun Juanita Agirrek eta Kongon Mari-bel Egiluzek jasoko dabez diruok,

herrialde hareetako garapen proiektuetan lagunduteko.

Urte osoan zehar andra talde batek egin eta jasotako gauzak zozketatzen dira euro baten truke. Gabon inguruan urtero egiten dan tonbola honetan balio handiko lan artisauek lortu daitezke. Gainera atzenengo egunean otzara bat zozketatuko da eta boletoak, saridunak izan zein ez, gordetzeko gomendatzen dabe antolatzaileak.

AREATZA

Laster itzultzeko esperantzea daukie Ederren gurasoak**Erredakzinoa**

Zemendiaren 25ean, Boston Children's Hospital-eko alta hartu eban Eder Atxutegi Areatzakoak. Bihotzeko ebakuntza gogorraren

ostean, deskantsua behar dau orain mutikoak osatuteko. "Baina hau egunetako kontua da, deskantsua hartu behar dau, ibili, jan eta laster etxera" dinoe Ederren blegean.

Zemendiaren 6an egin eutsien bihotzeko ebakuntzea Areatzakoari eta 19an emon eutsien altea, baina 21ean barriro ingresa behar izan eben. Abenduaren 14an, azterketa mediku batzuk izango ditu, han Bostonen, eta dana ondo badago, handik gitxira hartuko leuke altea, etxera bueltatu ahal izateko.

ZEBERIO

Gas instalazio ikuskapen faltsuak baserrietan**Erredakzinoa**

Gas instalazioaren ikuskapena egiteko atxakia faltsuagaz, Zeberioko edadeko bizilagun bateri 200 euro ostu deusiela emon dau jakitera Udalak. Ez bakarrik Zeberion, inguruko herrietan be

ibili daitezke lapurrak eta kontuz ibilteko eta zalantzaren bat izatekotan udaletxera deitzeako dino Ana Belen Alberdi alkateak. Gomendioa beste herrietako herritarrai zabaltzea be gura dau Udalak.

Lapurrak gas teknikari moduan agertzen dira eta 200 euro inguru ordaindu behar izaten dau etxeok "ustezko" gas errebisino batengaitik. Zeberiokoa engainu bat zala konturatu zanean, udaletxean emon eban gertakizun horren barri. Kasu bakar baten barri jakin arren, alkateak gehiago be gertatuko zirala pentsetan dau, eta ez herri mugen barruan bakarrik.

ARRATIA

Kalidadeko aisialdia**Erredakzinoa**

BEGITUREN inkestari erantzun deusiela irakurleak kalidadezko aisialdia daukie euren erantzunen arabera. Izan be, erdiak bi eta lau ordu bitartean emoten dabe astean euren gustuko gauzak egiten, eta beste erdiak lau ordu baino gehiago.

Gabonetako menua

Gabonak hurreraten diran honetan, gure irakurleen Gabonetako menuaren barri jakin gura dogu. Hauze izango da itauna: Zelango menua izaten da Gabon Gauean zeuenean?

- Tradizionala: azea edo zopea; makailua edo arkumea; intxaur-saltsea, konpotea eta gabonetako postrea. Edo beste antzeko zoezer.
- Jai egunetako: entremesak; arraina edo okelea; turroia eta gabonetako postrea. Edo beste antzeko bat.
- Beste mota batekoa.
- Ez daukagu menu fijoak.

IGORRE

Gazteak Gaztetxea eskuratu dabe

Igorreko gazteak eraikin bat okupau dabe Gaztetxe bihurtuteko.

Irati Urien

Ikasturte hasieran jarri eben mar-tan "Eizu kiñu" dinamika gaz-teak. Dinamika horretan ekintza desbardinak eroan ditue aurrera, sinadura bilketea tartean. Zemen-diaren 17an heldu zan eurentzako "egun handia", Keinu okupau eben eta. Eureka batera Arratiako beste herrietako gazteak be bertan egon ziran, babesa eta lagunta-suna erakusten. Atondu, garbitu, erabilgarriak diran gauzak sailkatu... beharrari ekin deutsie.

Igorreko gazteen helburua gazte mobimentua aktibetea da, Igorren aktibazino hori ez daukiela adiera-zo deutsie eta begituri. Topagune bat, leku alternatibo bat behar dabelakoan dagoz. Okupazioaren aurretik euren proiektua ezagutara-zoteko hainbat ekintza egin dabez: kontzertuak, tailerra, umeentzako ekintzak, slackline, eskaladea... Gazteetako baten esanetan, "di-namika edo lan horren amaiera eta beste hainbesten hasikerea da gaztetxe hau". Askotan eguraldiak

edo Udalak baldintzatuta sentidu dirala azaldu dabe; eta Gaztetxe honegaz askatasun apur bat lor-tuko leukiela. Igorren taberna eta lokalak izan ezean herritarrak eta gazteak batzeako lekuri ez da-goala be salatu dabe gaztetxeoak, eta euren ilusino zein ametsak konpartidutako espazio bat behar dabela.

Diskotekea izandakoa

Igorreko Garbe auzoan dagoan eraikina diskotekea izan zan antxina, eta estudioa geroago. Gazteetako batek kontau dau-nez, jaubeagaz negoziazioetan dagoz, seguru bat egin ezkeru arazo barik itxiko deutse erabil-ten. Azken finean erabilpen bako eraikin bat zala ikusi eben gaz-teak, eta berau okupetea aukera-tu eben. Oso handia da, hiru pisu daukaz, komunak eta hainbat bulego. Diskotekea zala eta, in-sonorizatuta dago gainera. Beste gazteetako baten esanetan, "bai kokapen fisiko zein infrastruk-turari jagokonean egoki ikusi



Igorreko Gaztetxea.

Argazkia: Irati Urien.

genduan, eta hutsik egoanez, barrura".

Herritarrak zein jenteak leku hori eukitea eskertuko dabe-lakoan dagoz gazteak. Proposa-men asko ei daukiez, baina beti be herriarentzako onuragarria dana egin gura dabela azaldu dabe. Orokorrean kultura eta ai-sialdia jorratuteko asmoa daukie; horregaz batera, gazteak gestio-nau eta egun guztirako ekintzak egitea be gura dabe. Auzolana be bultzatuko dabe, modu horretan herritarrak erabiliko daben goza-tuteko leku bat bihurtu arte.

Gaztetxean daren denpo-ran sano pozik dagozala kontau dabe, gazte eta ez hain gazte diranak lan egiteko gogotsu hurreratu jakiezalako. Hasikera-hasikeratik adierazo daben lez ondo etorria izango da Kiñura datorren edonor. "Ateak zabalik dekozuez" mezua argi zabaldu dabe edonor.

ARRATIA

Mobilizau egin zan Arratia bardintasunaren alde

Erredakzioa

Eguraldi eskasa zan zemendiaren 24an, arratiarrak abortatzeko es-kubidearen alde Zeanuritik Dimara martxa morea egin ebenean. Zea-nuritik 7 lagun baino ez ziran ur-ten, baina bidean jentea joan zan gehitzen eta Dimara 100 inguru sartu ziran. Frontoiko ekitaldian, Irati Astondoak eta Irati Bernalak bota zituen bertsoak. Bidean, ko-

txetatik bozink jo eta balkoietan jentek txalo egin eutsen ibiltariak atxikimentua adierazoteko.

Hurrengo egunean, zemendiak 25, hirurogei bat lagun bildu zi-ran Igorreko Kultur Etxe parean andren kontrako indarkeria-ren aurka. Herritarrak batera, erakundeetako ordezkariak egon ziran: alkateak, zinegotziak eta mankomunidadeko ordezkariak, beste batzuen artean.



GABONETAKO ZOZKETA

ARRATIAKO MERKATARIEN ELKARTEA

2013ko ABENDUAREN 26an



HIRU GABON OTZARA

	Aldeturriaga Oinetakoak Elexalde 20 94 673 62 18	HEGAZKIÑA Taberna Lehendakari Agirre, 25 626 21 17 69	MUGARRI Garbe 2 94 631 51 03	KUKUMA Lehendakari Agirre 8 659 73 71 61	ARRATIA Informatika Bidebarri 2 94 631 58 10	Arratia Serv. Inmobiliarios Lehendakari Agirre 23 94 631 51 89
ARRATIA OPTIKA Lehendakari Agirre 12 94 631 57 11	ARRIAUNDI OKINDEGIA Garbe 4 94 631 56 20	PUMUKYSS Otabarri 16 bajo 699 90 86 32	Asesoria Atutxa Gordoniz Sabino Arana 39 94 631 60 41	ATUTXA ANAIK Sabino Arana 38 94 631 57 16	AXULAR Kultur elkarte Lehendakari Agirre 4 94 673 70 92	A.Z. RUGBY TABERNA Lehendakari Agirre 94 673 11 27 88
BEASKO Perfumeria Sabino Arana 13 94 673 68 10	BEATRIZ Fruteria Lehendakari Agirre 31 bis 94 673 64 51	BELAGORRI Belar denda Lehendakari Agirre 9 94 631 14 39	BELAUSTEGUI JOYEROS Elexalde 14 94 673 64 72	BIZKOR Kristaldegia Lehendakari Agirre 19 94 673 69 53	CANTABRICO Pescaderia Lehendakari Agirre 7 94 673 61 63	EZKUR Oinetakoak Lehendakari Agirre 14 94 673 62 24
DIA Autozerbitzu Sabino Arana 25 94 631 15 26	MEDRANO Jatetxea Torrea 14 94 631 57 74	EDURTZETA Janari denda Elexalde 32 94 673 61 25	BEREZI Taberna Lehendakari Agirre 23 94 602 02 03	ELIXABETE ILEAPANDEGIA Elexalde 4 Esku 94 631 91 03	ENAR KIROLAK Lehendakari Agirre 2 94 673 69 00	EZKIÑA TABERNA Lehendakari Agirre 7 94 673 62 12
FELIPE GARAJE Garbe 2 94 673 63 39	GALANTA MERTZERIE Lehendakari Agirre 23 94 631 90 08	GARANTZE Autoeskola Lehendakari Agirre 31 94 673 71 32	GAU LORA TABERNA Lehendakari Agirre 33 94 673 61 33	GOLOSKI Lehendakari Agirre 5 653 74 77 38	BIZARGINAK Elexalde 20 630 74 35 43	OLAETXE Optika zentroa Sabino Arana 3 94 657 70 03
IGORRE Decor y Pintura Bidebarri 1 ij. esker 94 673 64 01	IGORRE GASOLINERA Lehendakari Agirre 18 94 673 60 13	IGORRE Fisioterapia Elexalde 4 94 631 55 08	IRU-DEKO BURDINDEGIA Lehendakari Agirre 9 94 673 61 92	ITARGI KAFETERIA Lehendakari Agirre 7 94 631 60 40	Izakun Alvaro Estilistas Sabino Arana 13 94 631 52 66	JUBILATUEN TXOKOA Elexalde 33 94 673 71 11
KILI-KILI UMEEN DENDA Lehendakari Agirre 10 94 673 63 51	BEREZITU Guten gabeko okindegia Lehendakari Agirre 11 94 673 72 80	KIRRU ILEAPANDEGIA Sabino Arana 38 behea 94 631 92 00	KIXMI Kopi denda Lehendakari Agirre 5 94 612 02 41	KUTUNGORRI Sabino Arana 33 607 47 03 20	LARREA INMOBILIARIA Lehendakari Agirre 8 behea 94 631 80 04	LORANE BAZAR Lehendakari Agirre 13 94 656 14 25
MERKA- LABELA Janari denda Lehendakari Agirre 15 94 673 63 10	AINARA KIROLAK Lehendakari Agirre 19 94 631 57 05	ORRIE Lehendakari Agirre 7 94 673 64 75	PINO FRUTAS Garbe 2A 615 79 43 40	Aliprox MIREN Janari denda Garbe 4 94 673 71 66	REKALDE HARATEGIA Sabino Arana 30 94 631 55 85	SEIN Lehendakari Agirre 27 94 631 92 96
SURYA Centro belleza Elexalde 23 behea 94 631 57 55	TORRES FONTANERIA Lehendakari Agirre 17 607 27 36 58	TXAPARRO JATETXEA Otabarri 17 94 631 53 81	VIAJES ECUADOR BIDAIAK Elexalde 2 94 631 52 36	ARRATIA Autoeskola Garbe 10 94 631 56 31	ZUZENBIDE Sgros y Asesoria Sabino Arana 3 94 673 91 41	

ABENDUAK 3: EUSKEREAREN NAZINOARTEKO EGUNA

Euskeraz bizi Arratian

Asko dira Arratian euskeraz bizi gura dabenak eta hori izango da Euskerearen Eguneko aldarria. Eremu euskalduna da Arratia eta euskera jakintza maila altua dago bertan. Dana dala erabilera ez da gura bezain altua eta hau sustatzen saiatzen dira gizarte eragile eta erakundeak.



Igorreko Inbiu Euskera Eguna.

Erredakzioa

Eustatek 2011. urtean egindako Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Erroldaren arabera, BEGITUREN eremuan, hiztunen % 69 euskaldunak dira; % 16,5 inguruk, euskalduna izan barik, badaukie euskerearen ezagutzaren bat, ulermen mailan behintzat, eta gainerako % 14,5 erdaldunak dira, euskera ulertu ez eta berba egiten be ez dakienak. Erkidegoan % 37,2 dira euskaldunak; % 25,5 ia euskaldunak eta % 37,2, erdaldunak. Gainera, jakintza maila handitzen doa eta 30 urte baino gitxiago daukienen artean dago jakintza mailarik altuena, bai Erkidegoan, bai Arratia, Ubide eta Zeberion.

Dana dala, Arratian gehienak ez dira euskeraz bizi, eta erabilera eta batez be gazteen hizkuntza ohiturak dira kezkarik handiena sortzean dabenak adituen artean.

Erabilera kezka nagusia

Atzen urteotan euskera gitxiago entzuten dala herri gehienetan dinoe adituak zein herritarrak. Igorren, kale erabilerearen neurketea

egiteko eskatu eutsien Klusterrari 2011n, eta datua txarra izan ez arren, kezka adierazoten dau Amaia Arauzo Igorreko Euskera Teknikariak. Igorren % 68 euskaldunak dira, % 14,5 ia euskaldunak eta % 17,5 erdaldunak, eta kale erabilera 47 puntutan dago; gora egin dau 10 puntutan 2006tik. "Datua hutsean hartuta, positiboa dala esan geinke, erlatiboki, herritarren hizkuntza gaitasuna kontuan hartuta, euskera gehiago entzuten dalako estadistikoki espero leitekeana baino. Halanda be, adin tarteari begiratzen badeutsagu badira kezkarriak diran datuak. Batetik, gazteak jagokienez, 15-24 urte bitartekoak, erabilereak behera egin dau ia 10 puntu azken 5 urteotan, % 44tik % 35,4ra. Bestetik, haurrak eurak bakarrik osotutako taldeetan eta haur eta helduen artean osotutakoetan, euskeraren erabilera % 61,5ekoa bada be, heldu horreek haur barik dagozanean, erdian baino askoz gitxiagotan egiten dabe berba euskeraz, % 27,4". Kezka bardina agertzen dabe Diman, gure eremuan jakintza maila

handiena daukan herrian (euskaldunak % 82; ia euskaldunak % 10 eta erdaldunak % 8). Hemen be gazteen arteko erabilera bultzatu gura dabe. Holan, Euskerearen Egunaren harira, Dimako Gazte Asanbladeak ume eta gaztetxoak zuzendutako ekintzak egin zituan hilaren 1ean, "Bermatu deigun euskera etorkizunean" lelopean. Antzeko zerbaist gertatzen da Areatzan (euskaldunak % 60, ia euskaldunak % 22 eta erdaldunak % 18). Areatzako Euskera Batzordearen arabera, euskerearen ezagutzea igo egin da herrian, baina kalean ez da asko erabilten, batez be komertzio, taberna, eta abarretan eta euskaldunak goraka egin daben arren, erabilera ez da igartzen.

Lemoan (euskaldunak % 55; ia euskaldunak % 24 eta erdaldunak % 21) be kale erabilereari jagokonean datu zehatzik egon ez arren, erabilereak behera egin dauala atzen urteotan uste dabe Miren Madariaga eta Gorka Barrenetxea Lemoako Euskera Teknikariak "Lemoa asko aldatu eta handitu da azken 10 urteetan. Inguruko he-

rrietatik jente asko etorri da bertara bizitera eta horreetatik asko ez dira euskaldunak. Horrek, jentearren arteko hartu-emonean eragina izan dau, komuniketako hizkuntza mugatuta dagoalako". Hemen be, kezkatuta dagoz umeak gero eta arinago hartzean dabelako gaztekeraz berba egiteko ohiturea.

Zeberion be euskaldun kopurua handia da (euskaldunak % 71; ia euskaldunak % 18; erdaldunak % 11) eta erabilera maila be ez dala txarra dino Jon Bollar Euskera Teknikariak. Euskera Plan honetan garrantzi handia emon gura deusie erabilereari eta batez be guraso euskaldunak babesa emon. "Inkesta baten agertzen da, gurasoak euskaldunak izan arren eta umeak eskolan euskeraz egin arren, etxean ez dabela beti euskeraz egiten".

Euskerea bultzatzeko, Euskera Planak

Euskerearen erabilera arlo guztietan bermatzeko eta bultzatzeko, Euskera Planak dagoz martxan udaletan. Herri txikietan, Arantzazun esaterako, Plan "formalik" egon ez arren euskerea bultzatzeko ekintzak egiten dirala dino Bego Llanos Arantzazuko alkateak. Bedian, Bigarren Plana daukie indarrean "urtean urtean, ekintza zehatzak" egiten dabez eta "eguneroko lan ekintzetan txertatzen" lgone Etxebarria Bediako euskera zinegotziaren arabera. Lemoan be

Gazteen arteko erabilera bajua da kezka nagusia

Hainbat ekintza egingo dira abenduaren 3a atxakia hartuta

bigarrena da indarrean dagoana 2008tik eta Ubiden, lehenengo plana daukie indarrean.

Igorren, 2001 ean egindako kale erabilerearen neurketako datu kezkarriak abiarazo eben bertako Euskera Plana. 2002an 14 lan-talde ibili ziran lanean Igorreko Euskerearen Plan Estrategikoaren diseinuan, guztira 250 personak parte hartu eben. Euskera Planaren Batzorde Eragilea orduantxe sortu zan eta ordutik talde finko horren bitartez diseinatu eta gartzen da Plana. Lehenengo, 2003-2006. urte bitartekoa izan zan. Helburu nagusi moduan, herrian euskerearen erabilera handitutea eta euskeraz biziteko aukera posible egitea zehaztu ziran orduan. Planaren ebaluazioa egin eta beste bi urtez luzatu zan 2007-2008. 2009an EBPN onartu zan, 2009-2012. Igaz, planaren ebaluazioa egin ostean, 2013-2014. urteetarako plan barria onartu zan. Momentu honetan, onartutako planaren egokitzapen prozesuan dabil Igorren. Izan be, EBPN atzean itxi, eta berori osatzera etorri dan Euskera Sustatzeko Ekintza Plana (ESEP) onartu barri dau Eusko Jaurlaritzak, eta horrenbestez, planak ESEPera egokitu behar dira. Hori holan, udal barrura begira bost urterako plan estrategikoa (2013-2017) landuten dabil, eta herriari begirako planari jagokonez, datorren urtean helduko deusie.

Zeberion aurten egin da bosgarren plana eta 2016a arteko indarraldia dauka. Artean 5. plangintzaldikoa egiten dabil, 2013 eta 2017 tarterako. Eta Areatzan be, datorren urtetik aurrera izango daben Euskera Plana burutzen dabilzela momentu honetan dinoe Batzordekoak.

Diman euskera politikak betidunik dagoz martxan, dana dala lehenengo plana 2006an martxan ipini zan eta 2006-2009 urteetarako izan zan. Gero 2010-2012rako bigarren plana ipini eben martxan eta 2013an bigarren plan honen luzapena egin dabe. "Orain 2014an hasita hirugarren plana ipiniko dogu martxan eta honegaz batera aurreko planaren ebaluazio datuak argitaratuko doguz" dinoe Udaletik.

Planon barruan euskera ikastaroak agertzen dira euskera sustatzeko. Udalak eta AEK-k alkarlanean antolatuten dabez ikastarook eta AEK-koak herrietara hurreratzen

Zugaitik BEGITUTen dogu
A.P.I. 495
www.inmobiliarialarrea.com
Lehendakari Agirre, 8 behea
48140 Igorre

INMOBILIARIA

Tfnoa: 94 631 80 04

ASESORIA Gorbeialde
Juridikoa · Fiskala · Lanekoa · Kontularitza
Askatasun 28, 1B 48143 Areatza
Tfnoa. 94 673 92 93 Faxa. 94 673 92 82
E-posta: gorbelaide@gorbelaide.com

belagorri

mediku naturista
argatzeko terapia
kosmetika naturala
elikagai biologikoak
zelakoentzat elikagaiak
estetziaria


Zamakoa, 9 - 48960 Galdakao
94 600 21 12 - 94 600 87 56
L. Agirre, 9 - 48140 Igorre
94 631 14 39

dira bertan emoteko eskolak. AEK-
k aurren euskaltegia desplazetan
dau Lemoara, Zeberiora, Bediara,
Igorreko BATZ lantegira, Igorreko
Kultur Etxera eta Areatzara.

Euskeraz biziteko aldarria

Abenduaren 3an, Euskerearen Nazinoarteko Egunean testuinguruan, Euskerearen Gizarte Erakundeek Kontseiluak "Euskaraz bizi nahi dut" aldarria etxeetako balkoietan ipinteko deia egin dau. Diman, honegaz bat eginda, udaletxeko balkoian aldarrikapen hori egiten dauan bandera ipini dabe eta etxeetan be ipintera animau ditu herritarrek Dimako alkateak. Eta festa handia egingo dabe Dimakoak Euskerearen Egunean. Arrastiko seiretan hasiko dan ekitaldian Lur Ziarrusta eta Aitor Asuaren bertsoak, Gotzon Aurrekoetxearen poesia eta David Ibarra "Houston" kantuan entzun ahal izango dira. Bihotz Gorospek eta Jose Antonio Aurrekoetxeak "Berak gu bakarrik gaitu" Ibon Izaren letra daukan kantu barriaren estreinaldi "mundiala" egingo dabe. Egun osoan zehar egindako jantzak, kantak, herria apaintzea... eta "201 baietz" ekimenagaz egindako bideoklipa be ikusteko aukerea egongo da.

Euskerea bultzatzeko, Arantzazun kartelak ipiniko ditue jentea euskeraren alde konzientzetako. "Euskeraz bizi" eta "Guk euskeraz, zuk zergaitik ez?" agertuko da karteletan Bego Llanos Arantzazuko alkateak BEGITURI adierazotakoaren arabera.



Zeberion be "Euskaraz bizi nahi dut" lasterketea egin eben zemendiaren 30ean, eta "Euskeraz bizi gura dot" kamiseteta soinean jantziko dabe igorretarrak Euskerearen Egunean. "Horrez gain, abenduaren 3a hausnarketa eragiteko erabili gura dogu: euskeraren inguruan, hizkuntza ohitu-

ren eta jarrenen inguruan, argi eta garbi, itzulunguru barik, konpleju barik, ausardiaz berba egiteko, eta horretarako Buah txabal! antzezlan eskeiniko dogu, Igorreko Kultur Etxean. Oro har, publiko gazteari zuzendutako antzerki lan bat bada be, euskaldun guzientzako obra da, obran azaleratzen diran egoerak ez

diralako gazteen artean emoten bakarrik" dino Arauzok.

Zemendiaren 30a aukeratu eben Bedian, *Bedia: bizimodua eta ohiturak* liburua eta DVDa aurkezteko. Eta Lemoan, euskeraren festa egingo dabe hilaren 3an Elizondo Kultur Gunean. Adierazpen instituzionala, "Harro

bizi euskeraz" abesti barriaren eta Berbalagunen aurkezpena egingo ditue eta "ezustea" eta "musikearen berotasunean mokaua" izango dira jai giroa ipiniko dabenak euskeraz biziteko aldarrian.

Duda barik euskeraz biziko dabe abenduaren 3a Arratian, Ubiden eta Zeberion.

KONPOSTAJEAREN KIN DAN ONDOA

ABENDUA

3 Martitzena					
UBIDE Udaletxean					
19:00					
9 Astelehena	10 Martitzena	11 Eguaztena	12 Eguena	13 Barikua	14 Zapatua
ARANTZAZU "Mutuosok lokalean"	IGORRE Kultur Etxean	AREATZA Udaletxean	DIMA Informazio bulegoan	ARTEA Ludotekan	IGORRE Kultur Etxeko Iburutegian
19:00	10:30	19:00	10:30	19:00	10:00 eta 12:00
DIMA Informazio bulegoan					
17:30 eta 19:30					
16 Astelehena	17 Martitzena	18 Eguaztena	19 Eguena		
IGORRE Kultur Etxean	ZEANURI Udaletxean	BEDIA Udaletxean	LEMOA Jubilatuen gaineko aretoan		
17:00 eta 19:00	10:30	19:00	10:30		
LEMOA Jubilatuen gaineko aretoan					
17:30 eta 19:30					
ZEANURI Udaletxean					
17:30 eta 19:30					

KONPOSTAJE IKASTAROAK

ETORRI ZAITEZ ETA MATERIALEAK HARTU!!!!

Informazioa eta zalantzak:
946 311 717

PELOTEA

Dimako eskolan 35 ume ikasturte honetan

15 urte baino gehiago dira Dimako Txumuluxueta pelota alkartearen sortu zana.

Irati Urien

Iñigo Atutxa 1998an hasi zuen entrenadore lanetan anaiagaz batera. 2004ra arte egon zuen neska-mutilak entrenetan, eta geldialditxo baten ostean 2010-2011n anaiari lekua hartuaz barrero be beharriekin eutsan. Momentu honetan gitxi gorabehera 35 ume dagoz pelotan Diman. Atutxaren esanetan pilo bat ume apuntatu dira.

"Oraingo egoera nahiko ona da, momentu txarragoak be euki doguz", argitu deutso entrenadoreak BEGURI. Alkartearen hasikeratik hona gauzak aldatu egin dirala azaldu dau Atutxak. Aldaketea txarrerako izan da galnera, eta arrazoi handiena futbola. Hasikerako urteetan sano ondo ibiltzen ziran, izan be ez egoan futbolerantz tirituteko ohiturarik Diman. Egun igarten dabe umeak falta jakiezala, baina igaz zein aurten hasi diranakaz pozik dagozala adieraz

dau entrenadoreak, "beti da gatxa futbolaren kontra ibiltea, baina ahaleginduten gara".

Joan dan urte bietan ez da neska bat be ibili Txumuluxuetan. Neska-mutilak edadean gorantz doazenean indarraren desbardinatasuna handituten joaten dala azaldu dau Atutxak. Horretatik aparte aitaturtekoa da ez dagoala nesken konpetiziorik. Entrenadorearen eretxiz neskek pareja mistoak ikusiko baleukiez gehiago animauko litzatekez.

Entrenamentuak jagokienean beti egin izan ditue astean bi egunetan, aurten hainbeste mutil dagozala eta hiru egunetan ipini behar izan dabez ostera. Astelehen eta eguaztenetan hiru ordu eta erdi, egunetan beste ordu eta erdi bat. "Leku barik gelditu gara, eta hori Dimako frontoia handia dala", adierazo dau Atutxak. Lehenengo hirugarren mailara artekoak entrenetan dabe, eta gero kategoriaren arabera be-

randuago hasten dira. Lorpenen artean handiena igaz Ekhi Ziarrustak lortu ebanekoa azpimarratu dau entrenadoreak. Makaztuiko gazteak Baque Txapelketea irabazi eban. Ha itzela izan zala dino, "ez genduan pentsetan irabaziko ebanik", kontau eban Atutxak.

Orokorrean Bizkaiko Txapelketan ondo ibili izan dira beti Dimako pelotariak, baina atzenengo urteetan ume faltea dala eta ez dabela emoitza onegirik lortu aitortu dau entrenadoreak, "aurten serioago hartu dogu emoitza kontua, eta polito gabiz" argituaz. Gero eta partidu gehiago antolatuten hasi dira umeak animetako, lagun artekoak adibidez. Diman esku peloteak etorkizun edo jarraipena eukiko daua pentsetan dau Atutxak, "partidu egunetan frontoian beti ume piloa ikusten da, danak pelotea eskatuten" adierazo dau seinale on moduan.

Trinketea "bizio" dimoztarrak

Hainbat txapel irabazi dabez Dimako mutilak trinketean. Iker Etxebarria, Ekhi Ziarrusta... Bizkaiko Txapelketetan punta-puntan ibiltzen dira beti. Bizkaiko Selekzioan be beste horrenbeste bai nagusietan, bai jubenetan, zein 22 urtera artekoetan. Atutxaren esanetan, "hor bai euki dabezala emoitza onak". Trinketea dala eta askok esku pelotea bigarren maila baten ixten dala be kontau deusku "Herriartekoa heltzean danean barrero frontoian zentratzen dira, baina gogo handiagoga prestetan dabe trinketea".



Dimako pelotari gazteak.

Argazkia: Irati Urien.

ESKALADEA

Itziar Zabala txapeldun Euskadiko Kirol Eskalada Txapelketan

Erredakzioa

Aretxabaletan jokatu zuen zemen-diaren 23an, Euskal Mendizale Federazioak antolatutako Euska-

diko Kirol Eskalada Txapelketearen azken proba eta Itziar Zabala izan zuen txapelduna. Astebete lehenago, Zailtasun Proba Baraiñanen (Nafarroa) izan zuen. Proba hau be Zabala irabazi eban.

Proba biak irabazi zituen Zabala dimoztarrak 20 urte artekoen kategorian. Sasoi ezin hobean ekin eutsan lehiaketari eta hasikerahasikeratik argi egon zuen txapela beretzat izango zala. Izan be, Aretxabaletan, 30 minututan lau bloke egin zituen eta haren atzetik sailkatu ziran biak bloke bana egin eban.



Itziar Zabala.

FUTBOLA

Gizonezkoetan Arratia 3. postuan

Ainhoa Duñabeitia

Gizonezkoetan, nagusiak azken neurketa biak irabazi dabez. Otxarkoagan kontra jokatu eban norgehiagokea 1 eta 3 irabazi eban. Hilaren 24an etxean jokatu eban partiduan be emoitza itzela lortu eban San Pedro taldeari 4-0 irabazi eutsien eta. Saillapenean hiruga-

ren postuan dagoz, 19 puntugaz. Hamar dira jokatu dabezan partiduetatik 5 irabazi, 4 berdindu eta bat galdu dabe.

Andrazkoetan, nagusiak ostera ez dabe partidurik irabazi azken bi neurketa honeetan. Beasainen jokatu eban partiduan 3 puntuak etekoak eroan ebezan, Beasain SD 2-Arratia 0. Hilaren 24an barriz, etxean jokatu eban neurketan bardinketea lortu eban, Arratia 0-Erandioko Betiko Neskek 0. Saillapenean 9. postuan dagoz 11 puntugaz.

Gizonezkoen bigarren taldeari jagokonez, Arratia B taldea saillapeneko 8. postuan dago 8 puntugaz.

Beer & Edariak s.l.
HEINEKEN SOLARES
Polig. Mendiolaza, 3. 48530 LEMOIA, Bizkaia
Tel: 609 482 839 / fax: 609 290 717

Pinturas Arratia
Javi Morato
Tel. 628 443 992

BIXER TABERNA
Beko kalea, 2 - Tel. 94 631 73 65 - VILLARDO

BIZARGINAK
Ulea era klasiko eta modernoan ebagiten dogu
Bixarra egin eta txukunduten dogu
Elexalde, 20 Rober 630 743 543
48.140 Igorre Manuel 661 848 793

ZEKUTZE
JATE TXEKA
Salbu Arana, 24
48140 IGORRE - Bizkaia
Tel.: 94 631 52 83
zekutejateklub@hotmail.com

indar
instalazio elektrikoak
Bildosola Industrialdea, pab. E 3-4
48142 ARTEA - BIZKAIA
t. 94 655 47 19
indarsi@indarsi.es • www.indarsi.es

umean moda
SEM
0-16
Agirre Lehendakaria, 27 • 48140 IGORRE
Tfnos. 94 631 92 96 • seimoda@hotmail.com

AKITEGIA
GAY & LORA
IGORRE

AHOLKULARITZA:
LEGE-LAN ARLOAN
ZUZENBIDE
ZERGA ETA DERU KONTUTETAN
ONDASUN HIGAZZINEN
ASIGURULETAN
Salbu Arana, 3 Tfnos. 94 671 71 61 - Fax: 94 671 94 61 - 48140 IGORRE

axular
kultur elkartea
Agirre Lehendakaria 4 - 94 673 70 92
axularke@gmail.com

ekin s.l.
CONSTRUCCIONES
LAN PUBLIKOAK
INDUSKETA
GARRAIOAK
UR SAREAK
SANEAMENTU SAREAK
BASERRI ETA BASOKO BIDEAK
PABELLOAK
URBANIZAZIOAK
Iturriotz barrena 8 • 48141 Dima (Bizkaia)
Tel.: 94 631 72 57 Faxa: 94 673 95 25
e-posta: obras@construccioneseekin.com

ARRATIA AUTOESKOLA
karneta eskuratzeko zain egon
Gorbe, 10 - 48140 Igorre (Bizkaia)
Telefonoa 94 631 36 31 Faxa 94 673 70 83
e-posta: uniozu@euskalnet.net

ZIKLO-KROSA



Alzola Bizkaiko Txapelketea irabazi ostean. Argazkia: Julen Bilbao.

Naia Alzola, Mikel Epalza eta Manu Quintanilla Bizkaiko txapeldunak

Erredakzioa

Oparoa izan zan arratjarrentzat Berriren zemendiaren 24an jokatutako Bizkaiko Txapelketea. Arratiako hiru ziklo-krosarik lortu eben txapela euren kategorietan.

Naia Alzola Dimakoak Bizkaiko txapela lortu eban elite andrazkoetan eta masterretako txapelak be arratjarrentzat izan dira. Mikel Epalza lemoaztarrak, master 30ekoa eta Manu Quintanilla igorreztarrak, master 40koa lortu eben.

23 urte arteko kategorian Jon Mikel Kareagak laugarren Egin eban eta Aritz Hernandezek bosgarren. Elite kategorian Julen Zubero lemoaztarrak bosgarren postuan amaitu eban lasterketea eta Opel Ibaiganeko Jose Antonio Mazairak, master 50ekoan hirugarren postua

lortu eban.

Zirkuitua lupetzez beteta egoan, aurreko asteko euriak zirala-eta. Zikuitu tekniko, astuna eta gogor-gogorra izan zan eta euria be izan zan protagonista txapelketa honetan.

Alzolak Arabako Txapelketea irabazi

Astebete lehenago Ametzan jokatu zan Arabako Txapelketea. Han be Naia Alzola sartu zan lehenengoa helmugan, baina Arabakoa ez danez, ezin da Arabako txapelduna izan.

Lasterketea gogorra izan zan; aurreko egunetan edurra egin eban eta lasterketa egunean hotz handia. Mikel Epalza eta Jose Antonio Mazaira be igon ziran podium-era bakotxa bere kategorian, hirugarren eta bigarren eginda, hurrengo hurrengo.

ZIKLO-KROSA

Igorreko ziklo-krosa antolatzekeo dirua lortzea, zirkuiturik gaxena

Erredakzioa

Hilaren 8an izango da Igorreko XXXVII. Ziklo-krosa. Goizeko bederatzi terdietan hasita eta ordu bi terdiak arte, kategoriaz guztietako ziklo-krosariak neurtuko dira Olabarriko zirkuituan. B kategoriazko nazinoarteko proba da Igorren jokatuena dana eta Euskadi Sari Nagusia. Inguruko ziklo-krosari "danak" egongo dirala dino Juan Mari Zurinagak, Arratiako Ziklista Elkarteko presidente eta Igorreko Ziklo-krosaren antolatzaileak.

Proba nagusiak 13:00etan izango dira. Orduan, izango dira Elite eta 23 urte arteko lasterketak. Honeek eta Gazte mailako nazinoarteko probak dira. Naia Alzola, Egoitz Murgotio, Aitor Hernandez, Javi Larrinaga eta Erlantz Uriarte izango dira Igorren besteak beste, Belgikatik, Eslovakiatik eta beste herrialdeetatik etorritako ziklo-krosariakaz lehiatzen.

Igorreko ziklo-krosa aldats-beheran

2011ra arte Igorreko Ziklo-krosa Munduko Kopako proba zan. Azken urteetan, kategoriaz mantenduteko behar eban aurrekontua ezin eben eskuratu antolatzaileak eta Erroman egiten da orain, lehen Igorren egiten zan Munduko Kopako proba. Baina Munduko Kopan egon ez arren, nazinoarteko da Igorreko Ziklo-krosa, eta finantziarazino arazoak eukiten jarraituten dau. "Dirua gero eta gitxiago dago, patrozinaroak



Igorreko Ziklo-kroseko igazko irabazlea.

gero eta diru gitxiago daukie eta. Ahalegin guztiak egiten gabiz ondo amaituteko eta kategoriaz handiko kanpoko jentea ekarteko". Azkenengo urte biotako martxan beharantza segiduten badabe, seguru asko, datorren urtean ezin izango deusiela nazinoarteko mailari eutsi dino Zurinagak.

Ordutegia

Aikomen lasterketen ordutegia.
09:30ean, Kadeteak.
10:15ean, Senior, Master eta Emakumeak.
11:00etan, sari banaketea.
12:00etan, Gazteak.
13:00etan, Elite eta 23 urte artekoak.
14:15ean, sari banaketea.

Oparitu BEGITU-lagun!

* Deitu 649 979 115 telefonora

Egizu zure laguna BEGITUren harpidedun eta otzara bete kultura oparitutako deusazu.

- 6 liburu: Arratia Inguruko Hiztegia, Ortozik, Ametz, Peru Tximaluze, Haizea aurpegiaren eta Arratia aldeko kanta eta bertso zaharrak.
- Arratia, Ubide eta Zeberiko argazki zaharren postal bildumea
- Luis Iruarizaga Abesbatzaren 25. urtemugako CDa

HAU DANAU JASOKO DAU BEGITU-LAGUN BARRIAK OPARI DOTORE HAU EGIN EZKERO

35€, 55€
edo 75
Euroren truke



BERBALDIA

JB Eguzkitzaren berbaldiak argitaratu ditu Labayruk

Erredakzinoa

Labayru Ikastegiak Lemoako Udaren laguntzeagaz Juan Bautista Eguzkitza Meabe (1875-1939) abade eta euskaltzainaren *Neure entzule maiteak. Berbaldi hautatuak* izenburuko berbaldien antologia bat publikatu dau. Bertan, 56 berbaldi jasoten dira, 47 argitaratu bakoak. Andres Urrutia euskaltzainburuak eta Nagore Etxebarriak egin dabe edizioa eta zemendiaren 19an, aurkeztu eben liburua Lemoan Labayruko Ander Manterolak eta Igone Etxebarriak.

"Neure entzule maiteak" esanda hasten zituan beti sermoiak Eguzkitzak eta hortik liburuaren izenburua. Liburua atal bitan dago bananduta, berbaldi banangoak eta eleiz berbaldiak jasoz. Gaur egungo irakurleari irakurketea errezteko, berba baten bari-

teak bardindu eta bateratu egin dirala eta gaurko idazkerara ekarri dabezala azaldu eban Igone Etxebarriak. Liburuaren ekarpenak honeexek dira: hizkuntzaren aldetiko aberastasuna eta esatari moduan lemoztarrak erakusten dauan maisutasuna, gaur egun be baliagarriak diranak eta jentaurrean berba egitean kontuan hartzekoak.

Euskerearen konzientzia

Ander Manterola Labayru Ikastegiaren sortzailea eta etnografo zeanuriztarrak egin eban JB Eguz-

kitza Meaberen erretratua eta bere sasoiaren deskribapena. Euskerearen konzientzia orduan sortu zala esan eban, "eta abadeen bitartez sortu zan". Garrantzia handikoa izan zan Jaungoiko-zale aldizkaria. Honen inguruan Ubideko Jon Kurutz Ibargutxi, Zeanuriko Gabriel Manterola eta Lemoako Juan Bautista Eguzkitza alkartu ziran. Errepublikasasoiaren izena aldatu eta Ekin izena ipini eutsien aldizkariari.

Eguzkitza, erlijino idazlea eta itzultzailea; sermoilaria; gizarte-aziaren erakuslea; Euskaltzain osoa eta kultur egilea; etnografoa, ikerlaria eta kazetaria, eta Jaungoiko-zale alkartearen partaidea izan zan.

1875ean, Lemoan ez zan ez trenik ez tranbiarik, eta 1.000 biztanle inguruko herria zan.



MUSIKEA

Bebek kantaldia eskeiniko dau Igorren

Erredakzinoa

Bebe gatzinez ezagutzen dan artistak kantaldia emongo dau Igorren abenduaren 14ean, 21:30ean Lasarte Aretoan. Bebe ezaguna egin zan 2004an bere lehenengo diskoa *Pafuera telarañas* kaleratu ebanean. Lehenengo disko honetan indarkeria matxis-

tearen kontrako "Malo" izeneko kantua dago. Bere kanten letrak andren zapalkuntzearen kontra agertzen dira.

Pafuera telarañas diskoak 500.000 ale baino gehiago saldu zituan eta sari ugari irabazi: Grammy latinao, Ondas saria eta Musikaren lau sari, hain zuzen be. Gero, beste disko bi kaleratu ditu Bebek, *Y* (2009) eta *Un pokito de rocanrol* (2012). Honeek be arrakasta handia izan dabe.

Zinean aktore lanak egin ditu kantariak, Jose Luis Cuedaren *La educacion de las hadas* eta Julio Medemen *Caotica Ana* pelikuletan parte hartuz.



LIBURUA

Salazar eta Aliagaren *Munduari bira geure alabekin* Durangoko Azokan

Erredakzinoa

Roberto Salazar, Isabel Aliaga eta honeen alabak, 2012an munduan zeharreko birari ekin eta ia urtebetez bost kontinenteetatik ibili ziran. Esperientzia ha *Munduari bira geure alabekin. La vuelta al mundo con mis hijas* liburuan jaso dau Igorreko familia honek eta Durangoko Azokan aurkeztuko dabe liburua abenduaren 6an, 11:00etan Areto Nagusian.

Ikuspuntu diferente bitatik dago kontauta biajea. Izan be, Roberto Salazarrek euskeraz kontetan dau biajea eta Isabel Aliagak gaztelez. Euskerazkoa eta gaztelez-

koa osagarriak dira eta ez, bata bestearen itzulpena. "Egindako ibilbidea, zein herrialdetan egon ginan, aholku praktiko batzuk, erabili genduzan ostatu motak eta garraioak..." azaltzen dira kontakizunean. Biajean egindako argazki eta marrazkiak dago ilustratuta liburua.

Durangoko Azokan edo etxean jasota

Liburua Durangoko Azokan erosi daiteke abenduaren 5etik 8ra, AFEDERen mahaian, edo rsalazar.rober@gmail.com helbidean eskatu daiteke eta etxean jasotzean ordaindu.



Liburuaren azala.

MUSIKEA

Run to Fest jaialdia Karabien

Erredakzinoa

Run Together Lemoako fanzineak eta Karabie Gaztetxeoak Run to Fest jaialdiaren III. edizioa antolatu dabe hilaren 13rako. Reggae eta ska gaua izango da, bertan Akatz eta Bilbomatiks taldeak joko dabe eta.

Run Together aldizkariko Pablo Rodriguezen esanetan, jamaikar doinuak entzun, jantzatu eta disfrutatuko gaua izango da.

Akatz taldeak hogeitau urte daroaz ska-reggae-a jorratuten, jamaikar doinuetan profesionalak dira, antolatzaileen eretxian. Bilbomatiks-ek, barriz, ska egiten dau. "Gazte eta gori, bizi kaskagori" Kaskagori konparsaren abestia Bilbomatiks-ek sortu eban.

LEHIAKETA

Ipuin Lehiaketa zabalik Zeanurin

Erredakzinoa

Abenduaren 17ra arte dago zabalik lanak aurkezteko epea. Hirugarren edizino honetako gaia "Naturra gustokoa dot" da eta Zeanurin bizi diranak hartu daikie parte. Hiru kategoria dagoz: 6-7 urte bitartekoak, 8 eta 11 urte bitartekoak eta 11 urtetik gorakoak. Ipuinak euskera batuan zein bizkai euskeran aurkeztu ahal dira eta sariak urtailaren 2an, 19:00etan bananduko dira Kultur Etxean.

Ipuinak gitxienez orrialde 2 eta gehienez 6 euki behar dabez. Kategoria bakoitxeko irabazleak diploma eta oparia jasoko dabe eta parte hartzaile guztiak izentagarritxo bat.

Dia %
PEDRO
AUTOSERBITZU
Sabino Arana, 35 48.140 Igorre
Tel. 94 631 15 26

ELEKTROARGI ELEKTRIZITATERA
Instalazio elektrikoak - Aberiak
Telekomunikazioak
Material elektrikoak

Juan de Ajuriagerra 1 Behea 48330 Lemoa
Tfnoa-Faxa 94 6312576 Mug. 647405115

Recreativos Gubi S.L.
Angel Larrea
Zornotza Tfnoa 649 86 95 36

Los Chopos
neurria egindako armairuak
Arde, Los Chopos, 35 (Nagar) Tel.: 94 630 40 94
Esposizinoa eta fabrika Lemoan
Pozueta poligonoa, Lemoa 94 631 34 44
www.armariosloschopos.com

Igorren
ARKITEKTOA
Aitzol Aurrekoetxea Pujana
Lehendakari Agirre 23. behea
aitzol@coavn.org - 675 705 111

***KIRRU* ILEAPANDEGIA**
SOLARIUM
Roberto eta Rosana
Sabino Arana, 38 bago - 48140 IGORRE (Bizkaia)
• 94 631 92 06

Jose Luis Corbacho
pintura lanak
Sabino Arana, 3. 3a • 94-673-70-87
Igorre 48140 Bizkaia • 609-79-49-54

SESOREAK
basola Emaldi
FERRIN ADMINISTRAZIOA
Abokatuak
• 620. 57.86.04
• asierabasola@hotmail.com
• Bilbao-Zeanuri

Emilio Goitia banatzaile ofiziala
San Miguel
Ardoak Edariak
94 673 64 02 Industrialea E-3 Pabellon (Igorre)

GARANTXE
Autoeskola
TEORIA EUSKARAZ
ZEIN ERDARAZ
Baimonak: A1, A, BTP, B
Lehendakari Agirre 31
Tfnoa: 94 673 75 32
48140 IGORRE (Bizkaia)
garantxe@evuhak.net

EUSKERA

"Harro bizi euskeraz" kantua aurkeztuko dabe Lemoan

Erredakzinoa

"Harro bizi euskeraz" Lemoako euskerearen aldeko abestia da, beren beregi Planerako sortutakoa. "Harro bizi euskeraz Lemoan" izan zan apirlean Planerako logo eta lelo lehiaketan irabazle izan zana eta lelo horretan oinarrituta egin dabe kantua. Larregi taldeak sortu eta herriko eragile, kuadrila eta alkar-teetako ordezkariak kantau eta grabau dabez. Abestiaren aurkezpena abenduaren 3an izango da, Euskerearen Nazinoarteko Egunean.

"2013ko Euskara Planeko erronka nagusienetako bat herria planaren parte-hartzaile zuzena izatea izan da. Hori dala eta, herriarrakaz batera sortu gura izan dogu Euskera Planaren irudia eta abestia izango diran erreferenteak" azaldu deutso BEGITURI Mi-

ren Madariaga Lemoako Euskera Teknikariak.

Euskera Eguneko aurkezpenaren ondoren, abestiaren bideokliparen grabaketari ekingo deustsie, eta hor be herriarrak izango dira protagonista.

Berbalagun

Herrian euskera jagon eta indartu guran Lemoan Berbalagun programea ipini dabe martxan hile honetan. Egitasmoaren helburua euskeraz berba egiteko ohituea daukien personak ez daukinakaz kontaktuan ipintea da. Horregaitik Berbalagunen parte hartu ahal dabe euskeraz bizi eta euskera praktikau gura daben guztiak.

Lemoan sano harrera ona izaten dabil eta Euskerearen Egunean aurkeztuko dabe egitasmoa herrian egingo dan festan.

PAILAZOAK

Pirritx, Porrotx eta Marimotots Zeanurin



Erredakzinoa

Abenduaren 13an, Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoak, barrea eragingo deutsee inguruko umeai Bizipoza izeneko ikuskizunagaz. Zeanuriko frontoian izango da arrastiko seiretan.

Ikuskizun honetan alkartasunaren gaia landuten dabe eta horretarako, Txemobyletik datorren laguna jaso gura dabe aireportuan. Euren furgoneta Panpoxa ez dabil eta sasoiz helduko ez ete diran bildur dira. Baina arazoak atzean itxiko ditue jentearen laguntzari esker.

Panpoxa furgonetan alkartasuna eta bizipozaren bijsua egingo dabe umeak, Pirritx, Porrotx eta Marimototsen eskutik. "Irriz irri, herriz herri, kantu, jantza eta muxu... zatozie geugaz Bizipoza zabaltzera!" dinoe pailazoak.

LEHIAKETE



Lehiaketako sarituak.

Arratiako Beldur Barik sariak banandu ziran Lemoan

Erredakzinoa

Aurten, arratiarrak hiru lan aurkeztu dabez Beldur Barik lehiaketara. Lehenengo kategorian, 12 eta 17 urte bitartekoan, bideoklip bat *Bildurrik ez izan*; eta bigarrenean, 18 eta 26 urte bitartekoan, bi *Emakumeak nola jantzi behar dira?* eta *Gure esku dago aldaketa*. Sariak *Ez izan beldurrik* eta *Gure esku dago* aldaketa lanentzat izan dira, baina hirurak kalidadekoak dira, eta mezua argi eta Beldur Barik jarkerea ondo adierazoten dabe. Saioa Elejabarrieta Lemoako alkateak eta Josune Gorospe Mankomunidadeko presidentek emon zituen sariak zemendiaren 29an Lemoan egindako ekitaldian.

Genero estereotipoakaz apurtuteko bildurrik ez izateko animetan dauz gazteak Alkar Ezagutuz taldeak *Ez izan beldurrik* lan sa-

rituan. Talde honek Zeanuri eta Dimako graffitiak be egin ditu.

Bigarren kategoriako lan sarituak, aldaketea danon artean egin behar dala adierazoten dau. Egileak Aina Bilbao, Ane Goienetxe, Begoña Barroeta, Miren Barañano, Maria Barroeta, Paule Barrenetxea, Pablo Rodriguez eta Rut Rodriguez dira.

Bigarren aldiz Arratian

Beldur Barik lehiaketea Eudel eta Emakunde antolatuten dabe Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan, eta igaztik Arratia mailako sariak be emoten dira. Lehiaketa hau "andranako indarkeriaren kontra egiteko tresna bat" dala esan eban Mankomunidadeko presidentek, eta gazteak animau zituan parte hartzean jarraituten "oraindino asko dago lortzeako" eta.



Kantua grabetan estudioan.

DUNBA

Alcatraz

Zeberioiko LHiko 3. zikloko ikasleak

Guk, Zeberioiko LHI-ko hirugarren zikloko ikasleok, Alcatraz gaia aukeratu dogu interesgarria iruditu jakulako.

Alcatraz hegazti baten izena da, baina aldi berean Golden Gate parke nazionalaren barruan kokatuta dagoan irla txiki ospetsuaren izena be bada.

San Frantziskoko (Kaliforniako) badia-aren sarreran dago. AEBtan Ozeano Barera begira.

1775. urtean Juan Manuel de Ayalak irlari "La isla de los alcatrazes" izena ipini eutsan.

John C Fremont-ek erosi eban 5.000 dolarrengaitik baina Mexiko eta AEBren arteko gerrearen ostean

galdu egin eban, eta Kaliforniako estaduan sartu zan.

1853. urtean armada irla gotortzen hasi zan.

Gerra zibillean 85 kainoi ipini ebezan baina ez ziran erabili.

1933. urteko urri bigarrenaren 12an espetxe bihurtu zan eta holan iraun eban 1963. urtera arte, 29 urte baino ez. Segurtasun berezikoa izanda garesti urtetan jakon gobernuari eta gainera ihesaldi ospetsu bat gertatu zan. Orduan Robert Kennedyk zarratuteko agindua emon eban.

1963tik 1972ra arte hutsik egon zan. Urte horretan Golden Gate parke nazionalen sartu egin eben.

Espetxe legez personaje ospetsuak gorde ebezan:

Alphonse Gabriel Capone (Brooklyn, 1899-Miami 1947) bere garaiko mafiosorik handiena eta ezagunena izan zan. Halanda be, ezin izan eben inoz frogatu inor hil ebanik. Baina azkenean zerga ordainketa saihesteagaitik espetxeratu eben.

Txori gizona. Robert Franklin Stroud (Seattle, 1890-Springfield, 1963).

Hilketa batengaitik espetxeratu izan zan. Isolamentuan bizi behar izan ebezan urte asko.

Horregaitik hasi zan txoriak aztertzen, zaintzen eta hazten.

Ezizena Alcatrazeko txorilaria izan arren, txoriakaz egindako jarduerak, batez be, Leavenwortheko espe-

txean burutu ebezan.

Espetxean igesaldi saiakera batzuk egon ziran. 1933an, 1934an, 1946ko maiatzaren 2ko igesaldian 7 hildako eta zauritutako asko izan ziran.

Baina igesaldirik ospetsuena 1962koa izan zan. Frank Lee Morris, John eta Clarence Anglin presoak iges egin eben. Koilara batez homan



Alcatraz irla.



zuloa, kartoiez ostonduta, egiten hasi ziran musika orduetan soinuak estaltzeko. Zuloa prest egon zanean paper matxer buruak egin eta oheetan jarri ebezan, eta gordeta eukien baltsa (gabardinak josita) erabilia iges egin eben. Gaueko hamarretarako alboko irlan egozala esaten da. Gobeinuak ez eban inoz onartu igesaldi arakastatsua izan zanik, baina handik gixira beste igesaldi saiakerearen ostean espetxea betirako zarratu eben.

Angel island-en presoen objektuak aurkitu zirala-ta ondo urten ebelako susmoa dago.

Zer uste dozu zuk?

AGENDEA

**ABENDUA
ZEANURI**

Hilaren 17ra arte dago zabalik Ipuin Lehiaketan lanak aurkezteko epea

ABENDUAK 3

Euskerearen Nazinoarteko Eguna.

DIMA

18:00etan, ekitaldi hasikerea. Bertsolariak: Lur Ziarrusta eta Aitor Asua, Poesia: Gotzon Aurrekoetxea, David Ibarra "Houston" kantuan. "Berak gu bakarrik gaitu" kantuaren aurkezpena. Bihotz Gorospe eta Jose Antonio Aurrekoetxea. Eskolako umeen ikuskizuna. "201 baietz" bideokliparen aurkezpena.

IGORRE

20:00etan, antzerkia. Unai Iturriagaren *Buah txabali!* Lasarte Aretoan.

**LEMOA**

19:30ean, "Harro bizi euskeraz" abestiaren aurkezpena, Berbalagun egitasmoaren aurkezpena, "ezustekoa" eta musikearen berotasunean mokaua. Elizondoko Kultur Gunean.

UBIDE

19:00etan konpostaje ikastaroa udaletxean. Ikusi ikastaroak 9. orrialdean.

ABENDUAK 4**DIMA**

18:30ean, Andraizeak antolatuta, Turroi eta mazapan ikastaroa Landaburu Txokoa.

LEMOA

20:00etan, Ganzabal Mendi Taldeak antolatuta, bazkideen proiektuak. Txutxi Valderramaren *Buenos tiempos pasados caminando por la montaña*. Jubiladuen Etxeko goiko aretoan.

ABENDUAK 5**LEMOA**

Ganzabal Mendi Taldeak antolatuta, Pirinioetara urtekerea hilaren 8ra arte.

ABENDUAK 6**DIMA**

19:30ean, "Diman etxean gura doguz" Herrirak antolatutako errepresaliaduen aldeko konzentrazioa herriko plazan.

ABENDUAK 7**IGORRE**

22:00etan Zinea *El Ultimo concierto* Lasarte Aretoan.

ABENDUAK 8**AREATZA**

Batzokiaren 100. urteurrena. 12:30ean konzentrazioa Batzokian. 13:00etan mezea hildako alderdikideen omenez. 13:45ean ikurriñearen igoera eta mitina: Ibaso Atutxa. Ostein kopautxo.

IGORRE

09:30ean, XXXVII. Ziklo-kros Igorre.

17:00etan, umeentzako zinea *Azti txikia*.

19:30ean, zinea *El Ultimo concierto* Lasarte Aretoan.

ABENDUAK 9**LEMOA**

16:30etik 19:30era, tailerrak ludotekan hilaren 20ra arte. Gaia: Gabonak.

18:00etan, Arratiako Musika Eskolako gitarra ikasleen entzunaldiak. Jubiladuen Etxeko goiko aretoan.

ABENDUAK 10**LEMOA**

20:00etan, Ganzabal Mendi Taldeak

antolatuta, bazkideen proiektuak *Cavals del Vent*. Jubiladuen Etxeko goiko aretoan.

ABENDUAK 12**AREATZA**

19:00etan, zineforuma *Fresas salvajes* (Ingmar Bergman, 1957). Hizlaria: Jose Angel Rebolledo (gaztelaniaz). Udal Aretoan.

LEMOA

18:00etan, Gabonetako VIII. Marrazki Lehiaketaren sari banaketea.

**BaSo aHaztuak dokumentalaren estreinaldia hilaren 13an**

Kofinantziazioaren bitartez, dokumentala amaituteko diru guztia lortuta, *BaSo aHaztuak* dokumentalaren estreinaldia izango da hilaren 13an, arrastiko zortziretan Igorreko Kultur Etxean. Ibai Pujana, Maite Yurrebaso eta Iker Yurrebaso egileak bertan izango dira.

Hiru animazio barri eta saskigintzearen ofizio zaharraz irudi argitaratu bakoak ikusteko aukerea egongo da estreinaldian. Dokumentalak basoen kudeaketa erduez hausnarketea egiten dau eta hamabi laguneri egindako alkarrizketa eta animazio piezez eginda dago. Dokumentala ikusi ondoren, egilei itaunak egiteko aukerea egongo da eta gero, kopautxo bertaratutakoentzat.

eta Akatz taldeen kontzertuak. Karabie Gaztetxean.

ZEANURI

18:00etan, Pirritx, Porrotx eta Marimotots. *Bizipoza* ikuskizuna Frontoian.

ABENDUAK 14**IGORRE**

Tonbola solidarioa.

21:30ean, Bebe-ren kontzertua. Kultur Etxean.

LEMOA

Ganzabal Mendi Taldeak antolatuta, Turroi Eguna. Eneabe (781 m.).

ABENDUAK 15**AREATZA**

12:00etan, Euskaldunara urtekerea, Bilbaoko Udal Banda eta Bilbaoko Koral Elkartearen kontzertua ikustera. Eleiz portikuan.

BEDIA

11:00etan, Bediako parrokiak antolatuta, Alto Trujillo-ko Fe y Alegria eskolarean alde katekesiko umeak egindako eskulanak plazan.

IGORRE

17:00etan, umeentzako zinea *Doraemon y Novita Holmes, misterioso museo del futuro*. 19:30ean, zinea *El mayordomo* Lasarte Aretoan.

Tonbola solidarioa.

LEMOA

Ganzabal Mendi Taldeak antolatuta, Arratiako mendiak eta herriak 12.

zeharkaldia Zumeltza-Dima.

IRAGARKI LABURRAK

SALDU**SALGAI**

Tabernarako kafeterea eta molinilloa salgai. Gaggia Nera markakoa. 600 eurotan. 619 728 188 (Unai).

TXAKURKUMEA SALGAI

Hile biko 4 txakurkume saltzean dodaz. Artzai txakurrak dira. 25 eurotan zure esku! Telefonoa 616 440 185.

PISUA SALGAI ZEANURIN

90 metro karratu ditu. Hiru logela. PVCko bentana barriak. Barrikuntzak behar dauz baina sartu daiteke biziten. 98.000 euro. Interesdunak deitu 618 557 363 telefonora.

ETXEA ALOKATZEKO EDO**SALTZEAKO**

Urkuzun (Igorre). Kamarea, bizilekua, kortea eta garajea daukaz. Margari 94 673 61 80.

DANERIK**AREATZAN ETXEA ALOKAIRUAN**

180 m² dituan etxe erreformau bat alokairuan, erosteko aukereagaz. Lau solairukoa: 3 logela, 2 bainugela, txokoa, kamarea eta terraza. 656 716 560.

INGELESEZKO ESKOLAK

Ingelesezko eskola partikularrak emoten

dodaz Bedian eta Lemoan. Telefonoa 637 754 981.

GELA ALOKATZEN DA AREATZAN

Gela alokatuten da, pisu konpartiduan, Areatzako alde zaharrean, pisu barri baten. 170 € + gastuak erdibana. Etxea ikusi edo zalantzak argitzeko deitu/ideatu: 650 009 391.

TXAKURRENTZAKO LEKU BILA

Nire txakurrak eukiteko leku txiki bat topetan nabil Igorren (680 518 473).

PISUA SALGAI EDO ALOKAIRUAN

70 m²ko pisua salgai edo alokairuan Areatzan, parke aurrean. Gela bi, sukaldea, komuna eta egongela. Interesdunak 665 727 881 telefonora deitu.

Zeozer saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat. begitu@topagunea.com-era. Mezuak doban dira.

Begitu-lagunen txokoa**Zenbaki honetako saridunak:**

1 Igorreko Kultur Etxeak emondako bina sarrera Beberen kontzerturako.

Guillermo Carreño (Bilbo)
Iñaki Egileor (Igorre)



2 Zeanuriko Udalak emondako bi sarrera Pirritx, Porrotx eta Marimotots-en *Bizipoza* ikuskizunerako.

Garbiñe Uriarte (Dima)



g Zerturen argitalpenak jasoko dozuz,

zozketetan

sartuko zara.

BEGITUK 11


urte eta

ehundaka

lagun.

DENPORA-PASA

IMAN OLATU




EZKERRETIK ESKOIERA

1.- Testigu. 2.- Zikin. Letra mutua.
3.- Edabe garbi. Lorea. 4.- Esneagaz egiten dan janari. 5.- Suagaz batera. Birritan, umeen berbetan, ura.
6.- Ortuari bat. Bat erromatar. 7.- Bokala. Karraska. 8.- Animalia. 9.- Hanka. Zidarra.

GOITIK BEHERA

1.- Suitzako kantoitxi bikiena. Bardin.
2.- Kabilia, ziri. Hamaika erromatar.
3.- Errepetiduta, kontuz. Zein gauzatan. 4.- Borborka, irakiten.
5.- Herri handia. Alarau, intziri.
6.- Konsonantea. Matematikan, limitearen sinboloa. Garoa.
7.- Aditzari ohikotasunaren zentzua emoten deitso. Frantziako hegomendebaleko departamentua. Letra bat.



Topau Erromako zazpi enperadoreen izenak.

S	E	R	P	E	N	T	I	O	N
U	C	L	A	U	D	I	O	V	A
L	A	U	K	A	U	I	D	E	Z
T	I	G	E	R	R	K	A	S	I
E	B	A	L	E	U	A	C	P	M
N	O	R	B	A	L	I	A	A	E
I	O	I	U	G	A	R	L	S	O
O	T	A	G	O	F	A	I	I	N
R	S	I	A	N	U	R	G	A	S
A	U	N	E	R	O	N	U	N	A
S	G	O	T	I	K	A	L	O	R
K	U	Z	A	V	I	F	A	R	O
O	A	K	R	A	N	U	J	I	Z
G	E	U	T	I	T	O	O	D	A
A	R	T	I	K	O	L	A	P	E

AKI MI KO

Igor Menika



HERRIKO BENTA
HOSTAL
HERRIKO PLAZA,
48142 ARTEA (Bizkaia)
Tel. 94 631 72 56

bbk =

arratiako instalazioak s.l.
Berokuntza - Iturgintza - Gasa
Aireztatzeko sistemak
Aire zurgatze zentralizatua
Suteak kontrolatzeko zerbitzuak eta mantentze lanak
Igorreko Industrialdea
Fab. D7
Tel. Fax. 94 673 62 76
Tel. 619 736 516
48140 Igorre Bizkaia

Bizkaifisios SLk
bi zentro ditu
Fisioterapia Zentroa Igorre
Elexalde 4
Telefonoa 94 631 55 08
Andra Mari Klinikea
Fisioterapia Zentroa
Pontzi Zabala 1 Galdakao
Tel/faxa 94 457 23 64
www.bizkaifisios.com

Gure Ikastetxeak
Arratiako Herri Ikastetxeak 2 urteik 18ra. Eskalduna, kalitatekoa, herrikoa

- Arratia BHI**
Tel.: 94 673 62 37 Faxa: 94 673 62 37 Igorre
- Ikastola Arratia HI**
Tel.: 94 673 90 45 Faxa: 94 673 90 45 Artea
- Zubialde HI**
Tel.: 94 648 06 82 Faxa: 94 648 14 84 Zeberio
- I. Zubizarreta HI**
Tel.: 94 673 60 22 Faxa: 94 673 60 22 Igorre
- Areatzako Herri Eskola**
Tel.: 94 673 90 93 Faxa: 94 673 90 93 Areatza
- Zeanuri HI**
Tel.: 94 673 93 33 Faxa: 94 673 93 33 Zeanuri
- J.B. Eguskiza Meabe HI**
Tel.: 94 631 32 28 Faxa: 631 32 28 Lemoa
- Ugarana HI**
Tel.: 94 631 55 32 Faxa: 94 631 92 11 Dima

Haur hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Batxilergoak, Hezkuntza zikloak

Kendall Languages
- A, B eta C perfil linguistikoen lorpena Trinity College London eta Oxford Universityren zentru ofiziala, azterketak zentruan bertan eginaz
- Cambridge, EOI, First Certificate... azterketetarako prestaketea
Elexalde 4 behea · 48.140 Igorre (Bizkaia) · 94 657 73 48 · www.kendall-languages.com

SORAYA GARCIA TOTRICABUENA

Ariketa fisikoaren bidez, estresa kentzean da

Soraya Garcia Toticabuena formazino aldetik Informatika Ingeniaria da eta Pedagogia ikasten dago orain, baina beti izan dauz kirola, eta jantzea batez be, gustukoak. Txikitatik, gimnasia eritmikoa, aerobic, jantza modernoa eta areto jantzak egin ditu eta unibersidadeko ikasketak amaitutakoan eskola honeek emoteko aukerea ez eban pasetan itxi. "Ikasleen aurrean jantzeak txipa aldatu arazo eustan eta jakin neban hau izango zala nire lanbidea" dino.

Garcia, Aerobic, Step, Zumba, Pilates eta Jantza modernoa (Lirikoa, Jazz-a, Funky-a, Hip-hop-a...) erakusten dauz. Bedian Pilates eta Aerobic irakaslea da, martitzen eta eguenetan emoten ditu eskolak 17:30etik 19:30era.

Erredakzioa**Bediaz aparte, Arratiako beste nonon emoten dozuz Pilates eta Aerobic eskolak?**

Momentu honetan Arratiako beste herrietan ez dot eskolarik emoten. Baina ordutegiak aukerea emon ezkerro, ez neuke eragozpenik izango. Arratiatik kanpo, jantza eskolak emoten deutesdaz 3 eta 16 urte bitarteko umeai Barakaldoko gimnasio baten; Zumba, Pilates eta Jantza modernoa Ontongo andra alkarte baten; Jantza modernoa Sopelako ikastola baten eta Pilates Las Carras-eko andra alkarte baten. Leku batzuetan aurten hasi naz, beste batzuetan 2, 3, 4 edo 5 urte daroadaz. Dana dala, eskolak emoten guztira 10 bat urte daroadaz, gehi ikasle izandako guztiak.

Zertarako balio dau Pilatesak?**Zergaitik dauka hain arrakasta handia?**

Muskulua tonu ona emon eta gorputza indartu eta tonifiketan dau. Gainera, malgutasuna, bizitasuna eta oreka zentzua gehitzen dau. Alienazino posturala hobetuten dau eta postura ohitura txarrak zuzentzen ditu, lesinoak ebitau edo errehabilitatzeko be balio dau. Arnasa hartu eta konzentrazioaren bidez lasaitu egiten da personea, estresa eta tensioak kendu egiten dira. Autoestimua eta gorputzaren ezagutzea handitzea lortzean dau, ongizate fisiko eta mentala sortuz eta eguneroko lanak egiteko bizitasuna eta indarra emoten dauz.

Horregaitik guztiagaitik euki dau Pilates Metodoak horrenbesteko arrakastea. Edozein personak atera ahal deusalako etekina Pilatesari. Inoz jarduera fisiko bat egin bako

jenteak praktketan dauanean ondo sentidu arazoten deusan eta emotzak emongo deusazan jarduera bat bilatzen dau. Lesinoak prebeniduteko metodo bat be bada, eta lesinoak izan ezkerro, arindu egiten ditu. Personeak bere gorputzaren konzientzia hartzean dau. Egun osoan postura onak mantendutea, prebentzino modurik onena da. Entrenamentu fisiko eta mental hau Joseph Hubertus Pilates-ek sortu eban XX. mendearen hasikeran, baina ez zan modan ipini XXI. mendearen hasikerara arte, famaduak entrenamentu metodo moduan erabilten hasi ziran arte, hain zuzen be.

Zergaitik ebatzi zenduan Pilates eta beste disziplinak irakastea?

Kasualidadez-edo heldu nintzan mundu honetara. Hamasei urte nebazanetik, ikasi eta lan egin biak batera egin dodaz, eta behin, ABLE batetik deitu eusten zuzendutako ekintzen begirale lana eskeiniz. Irakasle moduan ez neukan formazinoarik, bai ordea ikasle moduan, eta aurrera egin neban, ez neukan ezer galtzeako eta. Denporaldi bat egon nintzan han eta horretara dediketea ebatzi neban. Astebarruan unibersidadera joaten nintzan eta astegoienetan zuzendutako ekintzen begirale izateko formazinoak jasoten neban. Lehenengotik Aerobic eta Step emoteko titulazinoak atera neban; gero Funky eta Hip-hop irakastekoa, beti egin izan dot jantza eta hauxe zan egin gura neban zerbaist, gizatalde desbardina izaten da eta. Azkenean, Pilates emoteko titulazinoak atera neban. Hasikera baten ideak atzera botaten ninduan. Modan egoan, baina nik lar estatikoa ikusten neban emoten nebazan beste disziplinen aldean. Dana dala, aurrerapausu bat izan zan, asko ikasi neban, maila personalean ona izan zan niretzat, jantzarako be balio eustan eta, batez be, jente askoren bizi kalidadea hobetuteko balio izan deusta.

Aerobicak zertarako balio dau eta ze eskari maila dago?

Eskolak emoten hasi nintzanean Aerobica gailurrean egoan. Eskari handia egoan eta jenteari asko gustetan jakon. Ni urte askoan izan nintzan Aerobic ikaslea eta pentsau neban atera behar neban lehenengo titulazinoak haur izan behar zala. Aerobicak oxigeno konsumoa gehitzen lagunduten dau eta odol presinoak gititzen, eta gorputzaren malgutasuna eta muskuluen erresistentzia handitzen ditu. Gainera, metabolismoa hobetu eta egunean pilatutako estresa kentzean dau. Gaur egun, eskaria asko gitxitu da jarduera honetan eta Pilatesak, Spinning-ak eta Zumbak aurrea hartu deusie.

Pilatesa ona da edozein edadetako andra zein gizonentzat, baina edadeko andrak dira batez be egiten dabenak.

Pilatesa ez da inoz izan "andrentzako bakarrik" eta bere onurak be ez dira andrentzako bakarrik. Azken finean, gizon batek garatu eban Pilates metodoa, Joseph Pilatesek. Gizonak papel garrantzitsua izan dabe Pilatesen lana mantendutenean eta bere garapenari formea emoten. Gaur egun, Ron Fletcher, Pilatesen ikaslea izan zana, eta Isakowitz Rael dira ezagunenak. Egia da Pilatesa zabalduago dagoala andren artean, baina ez dauka ezer berezirik andrentzat gizonentzat baino gehiago izan daiten. Baina Pilates metodoaren gaitasun maila eta gorputz desbardinetara egokitzeko ahalmena dala-eta, andra askok aukeratu

dabe Pilatesa. Gainera, Pilatesak jantzi asko erakarri dauz, batez be andrak, eta horreetako askok Pilates lanbide moduan hartu dabe. Irakasleak andrazkoak izatea egin dau Pilates erakargarriagoa ikasle andrentzat. Zorionez, gimnasioetan arrakasta handia dauka Pilatesak eta gizon gehiago hasi dira izena emoten.

Aerobic-eko ikasleen perfila desbardina da?

Hori taldearen arabera da. Talde batzuetan jentea gazteagoa da eta beste batzuetan edade desbardinetakoa. Edade tarte 20 eta 55 urte artekoa izaten da, ze saltuak eta ariketa batzuk agresiboak izaten dira patologia batzuentzat.

Zuk zeuk ze kirol egiten dozuz?

Oinez ibiltzea, bizikletan, uger egitea, patinetan ibiltzea eta tenisean jokatzea gustetan jata. Eta batez be disziplina barrietako ikasle izatea.

Ariketa fisikoak sasoi onean ipintzen ditu burua eta gorputza. Arratiarrak sasoi dagoz?

Bedia herri txikia izanda, aurten lau talde sortu dira zazpi-zortzi lagunek osotutakoak. Aerobic talde bat eta Pilateseko hiru talde sortu dira. Herrian mobidu egiten dira jarduera desbardinak antolatuteko eta urtean-urtean jarduera honek segidu dagien. Batzuk astean behin etorten dira, beste batzuk bitan eta beste batzuk hainbat aktibidadetan hartzean dabe parte. Dana dala, astean tarte bat ateratzeak hona etorteko onurak dakar burua zein gorputzarentzat.



ALKIZABAL

www.alkizabal.net
alkizabal@alkizabal.net

Zabalik 07:00 - 19:00

Eraikuntzarako makineriaren salmenta eta alokairua

BOLUNBURU POLIGONOA
Amorebieta-Lemoa bidea
Tel. 94 631 44 06. Faxe. 94 631 20 26
48330 Lemoa (Bizkala)



KÄRCHER
Banatzaile ofiziala



















- Zuk behar duzuna daukagu, galdetu konpromiso gabe.
- Garraio zerbitzua.